



**"Uste duguna baino normalagoa da adikzio bat garatzea"**

Andrea Carrillo Juanbeltz / 2-4

**Cederna Garalurrek ibarreko zazpi proiektu 331.652,21 euroekin lagunduko ditu** / 12

**Euskaraldian entitateek Arigune gisa izena emateko epea astelehenean zabalduko da** / 8

**Altsasuko ludotekak egoitza berria mustuko du ikasturte berrian: Intxostiapunta** / 6

**Altsasu futbol taldeak larunbatean Beti Onak-i irabazten badio, Preferente mailara igoko da** / 15

**Altsasuko CBASK saskibaloitza taldea, Nafarroako mutilen aurre infantil mailako txapelduna** / 19

**Hamar urtez lanak gordeta izan ondoren, Aitziber Iragik bere lehenengo erakusketa mustu du** / 23

UDARAKO  
PRESTA  
ZAITEZ!

**Sakanaoptika**  
optometria • audiometría • hantabaklogia

Intxostia zeharbidea 10 (Altsasu)  
948 563 124 | [www.optikasakana.com](http://www.optikasakana.com)

ZEUS-AIGNE

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

Kulturalki badira zenbait droga kontsumo gizartean oso normalizatuta daudenak, alkohola kasu. Menpekotasun bat eragiteko faktore bat izan daitekeela esan du Andrea Carrillo Juanbeltz altsasuarrak. Txikitatik jendearen burua "ulertzeko" nahia eta jakin-mina izan duela esan du, "nola funtzionatzen dugun, zergatik funtzionatzen dugun horrela..." eta hemezortzi urterekin ikasketak aukeratu behar zituenean, "krisi" txiki bat izan zuen arren eta "beti zientzien ibilbidetik" ikasi bazuen arren, azkenean Psikologia ikastea erabaki zuen. Hautuarekin "oso pozik" dago. Psikologoak Gizakia Helburu Fundazioaren Aldatu anbulatorioan lan egiten du, adikzioak dituzten pertsonak tratatzen.

**Zer da Aldatu?**

Gizakia Helburu duela lau hamarkada inguru sortu zuten eta drogen eta adikzioen arloan lan egiten dute. Hasiera batean Komunitatea edo zentro erresidentziala sortu zuten, Lizarran, eta urteekin horren barruan beste programa batzuk eratzen joan dira. Aldatu zentro anbulatorioa da. Jendea gutxi gora behera asteen behin joaten da tratamendua egitera. Indibiduala eta taldekoa daude. Fundazioaren barruan ere Susperu dago eta bertan prebentzioan eta nerabeekin lan egiten dute. Bertan familiekin egoten dira gehiago, nerabeekin eta haien familiekin. **Beharren arabera programa berriak sortu dituzte, ezta?**

Gizartean sortzen diren beharren arabera moldatzen gara, eta egoitzapenak garatzen ditugu. Gizartea etengabe aldatzen ari da eta gu aldaketa horien parean goaz.

**Zergatik bertan lan egin?**

Beti izan ditut gogoko drogen inguruko gai guztiak. Buruan nola funtzionatzen duten, nahasketa horretan zer gertatzen den buruan ulertzea eta abar. Bizitzako egoera gogorak izan ditut gogoko. Hauek ulertzea eta konpontzen saiatzea. Nerabeen zen-



Andrea Carrillo Juanbeltz Gizakia Helburu Fundazioko Aldatu lan egiten duen psikologoa.

# "Garrantzitsuena da adikzioen gaia gizartean normalizatzea"

**ANDREA CARRILLO JUANBELTZ** PSIKOLOGOA

Gizakia Helburu Fundazioaren barruan Aldatu anbulatorioan menpekotasunak dituzten pertsonen tratamendua jasotzen dute, eta bertan lan egiten du altsasuarrak

troetan lan egin dut, eta psikologia ikasten nengoenean praktikak nerabeen edo drogen arloan egin nahi nituen. Badago jende asko adineko jendearekin eta haurrekin lan egiten duena eta oso gustura dago. Nik gauza gogorak nahiago ditut. Orduan, praktikak Gizakia Helburu egin nituen eta masterra ere drogen arloan egin nuenez, praktikak Aldatu egin nituen. Aurretik Aldatu ezagutzen nuen eta pixkanaka sartuz joan nintzen. Bertan ongi lan egiten nuen. Gustatu zitzaizen nire lan egiteko modua eta lehen begi kolpeko maitasuna izan zela esan daiteke.

**Profesionalki zer ematen dizu?**

Profesionalki asko ematen dit beti izan dudalako hori buruan. Nire helburua lortu dut, hemen lan egitea eta arazo horiek dituzten pertsonak laguntzea. Profesionalki lortu nahi nuena egin dut, eta dena ematen dit. Pertsonalki ere asko ematen dit ez delako berdina toki batean lan egitea non ez zauden hain konprometituta edo aberastuta. Oso pozik nago, oso gustura.

**Nola egin duzu lan?**

Tratamendu indibidualak eta talde tratamenduak egiten ditut. Nire lankideak eta nik bakoitzak dauzkagu gure erabiltzaileak deitzen ditugunak, bakoitzak bereak, eta gero talde bat gidatzen dugu. Talde desberdinak daude, prozesuaren arabera: hasiera batean, motibazio taldea dago, pertsona sartu berria da eta ez daki oso ongi oraindik sustantzia utzi nahi duen edo ez; gero fase hori amaituta autolaguntza deitzen diogun taldea dago, lortutako helburuak mantentzeko taldea eta hor bai bat egin dugu gizartearen aldaketarekin eta urrats nabarmena eman dugu eta izan da talde mistoa zena generoen arabera banatu duguna. Orduan, gizonezkoen taldea eta emakumezkoen taldea dago. Ni emakumeekin lan egiten dut. Azkenean, perfilak oso desberdinak dira. Oso desberdinak dira emakumeon adikzioen jorkaera edo gizonenean, eta banaketa hori egin behar zen.



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**GIDARIDUN LEHIO BERRIAK**  
Mugarik gabeko estetika moderna

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



**Zeintzuk dira desberdintasun horiek?**

Gizonezkoen eta emakumezkoen lehenengo desberdintasuna da normalean gizonak laguntza askorekin etortzen direla, familiar lagunduta. Emakume gehienak bakarrik etortzen dira, eta arazo asko izaten dituzte laguntza izateko. Horren aurrean atentzioa handiagoa izan behar da. Gainera, emakumeok beranduago joaten gara laguntza eskatzera. Normalean, edozein egoeratan emakumeoi laguntza eskatzea gehiago kostatzen zaigu, beraz, kasu hauetan askoz gehiago. Estigma bikoitza dute. Adikzioa duen pertsonak estigma dauka, baina emakumeek gainera beste estigma bat dute; bere genero errolarekin apurtu dute. Emakume bat adikzio batekin okerrago ikusita dago. Orduan, horrek isolamendu handiagoa ekartzen du, arazoa kronikoagoa egitea, laguntza beranduago eskatzea, familiarekin arazoak, haurrak, lana... Psikologikoki hondamena handiagoa da eta egoera gehiago konplikatzen da.

**Zenbat pertsonarekin aritzen zara?** Bakoitzak hogeita eta 26 pertsona artean hartzen ditugu. Urtean zehar, triste da, baina pertsona asko etortzen dira; 130 bat inguru izan daitezke. Alta eta bajen artean tarte horretan ibiltzen gara anbulatorioan. Komunidadean beste datu batzuk izango dituzte. Aipatutako estigmengatik emakume askoz gutxiago etortzen dira. %20 inguru emakumeak dira eta %80 gizonak. Kulturagatik emakume gehiago omen daude menpekotasun batekin, baina gehiago etorri beharoko ziren. Etortzen direnak baino gehiago daude.

**Nola iristen dira Aldatura? Nola hartzen dute erabakia?**

Erabaki hori normalean ez da pertsonarena izaten. Batzuek bai ikusten dute arazo bat dutela eta Gizakia Helburu entzuna dutenez, etortzen dira beren erabakiagatik. Koordinazio lan handia egiten dugu, eta buru osasun zerbitzuetik jende asko etortzen da. Baina gehienetan familiak bultzatuta etortzen dira.

**Horrek prozesua zaildu egiten du?**

Bai, motibazio handiarekin landu behar dugu.

**Zenbat denbora egoten dira tratamenduan?**

Hori da egiten duten lehenengo galdera. Baina denbora esatea oso zaila da. Nik esaten diet buruan izateko urte bat izango dela.

Gutxiago izan daiteke, baina buruan urte bat izateko. Jende asko urte bat eta erdi egoten da, beste batzuk urte bat baino gutxiago. Menpekotasunaren araberakoa izaten da. Jende asko oso motibatuta etortzen da, arazo askorekin, eta nahi duena da arazoei aurre egitea. Beste batzuk etortzen dira tratamendu erresidentziala bukatu dutela, bederatzi hilabetekoa dela, eta Aldatura birgizarteratze fasea egitera. Gutxi gora behera sei hilabete egoten dira.

**Baina Aldatura joateko ez da zertan erresidentzian egon.**

Bi sarrera daude: asko erresidentziaz sartzen dira birgizarteratze edo bizitzara itzultzeko prozesu hori egiteko eta badago jendea etortzen dena buru osasun zerbitzuetik, arlo judizialek edo

kartzelatik ordezkotratamendua delakoa egitera, familiak bultzatuta ere jendea asko etortzen da... Bizitza normala egiten dute, baina anbulatorioa zita indibidualak eta taldekakoak egitera etortzen dira. Gerta liteke arazo oso handia izatea eta anbulatorioetik sartu eta bertan zenbait hilabete egon ondoren erresidentzian sartu behar dena.

**Zenbatekoak izaten dira saioak?**

Anbulatorioan astean behin saio indibidualak eta taldekako saioak izaten dira. Gero beharren araberako mediku zerbitzua dago, zerbitzu soziolaborala lana bilatzen laguntzeko eta abar. Zerbitzu oso osoa da.

**Arrisku egoerak bizi izan dituzu?**

Biolentzia kasuak, egia esan, ez ditut bizi. Ez dugu seguritate zerbitzurik zentroan ez ditugu-

lako egoera horiek bizitzen. Arazo oso indartsu bat dugu, kontsumituta ez etortzea. Behintzat zitarra. Sustantzia kontsumitu ondoren ordu bat pasata gutxienez. Sustantziaren arabera ezin da zita ongi egin. Askok kontsumo aktiboarekin etortzen dira oraindik, eta saiatzen gara goizean goizeko orduetan etortzea kontsumoa ahalik eta txikiena izateko. Horrek laguntzen du pertsona geroz eta hobeto egoteko hitzorduetan, eta horrelako gauzak ez gertatzea. Horrelako egoerak gertatzen badira, polizia deitu baino gehiago, ambulanzari deitzen diogu. Laguntza eskatzera etortzen den jendea da, eta agian ingresatu behar dira. Suizidio arriskuekin ere etortzen dira batzuk, eta kasu horietan larrialdiekin koordinazio lana egiten dugu. Biolentzia baino gehiago horrelako kasuak izaten ditugu. Pertsonak mugako egoeretan etortzen dira.

**Bitxikeria gisa, talde tratamendua filmetan ikusten diren bezalakoak dira?**

Ez. Ez handi bat, gainera. Jende asko galdera horrekin etortzen da. "Pelikuletan bezala izango da eta nire izena esan beharko

**"EMAKUMEK ESTIGMA BIKOITZA DUTE; BERE GENERO ERROLAREKIN APURTU DUTE"****"ALDATURA ETORTZEKO ERABAKIA NORMALEAN EZ DA NORBERARENA"****"MOMENTU BATEAN GAUDE NON ADIKZIOEN MUNDUA ASKO ALDATZEN ARI DEN"****"ZENBAT IRAUNGO DUEN IZAN OHI DA EGITEN DUTEN LEHENENGO GALDERA"**

dut eta gertatzen zaidana kontatu beharko dut...". Ez. Talde oso jatorrak dira. Jendea oso prest dago. Talde irekiak dira, eta hori oso ona da beti daudelako taldea egiten. Prozesu desberdinetan dagoen jendea topatzen da, eta orduan denbora asko daramatenak denbora gutxi daramatenekin elkartzen dira. Guztiak batera egoten dira, eta taldeari kutsu berezia ematen dio. Taldeak talde egiten du. Beraiekin profesional bat egoten da, nire lan-kideak edo ni, eta taldearen arabera gai batzuk plazaratzen ditugu. Gizonezkoen taldean gai batzuk, beharren arabera eta abstinentzia mantentzeko gaiak, eta emakumezkoen taldean beste gai batzuk proposatzen ditugu eta jorratzen ditugu. Baina, bai, erakusten duten oso desberdina da. Probatu behar da ezagutzeko.

**ADIKZIOAK****Zein sustantziarekiko menpekotasuna ikusten duzue gehien?**

Gehiena, eta kulturak zerikusia handia dauka horretan, alkohola da. Ehuneko handiena alkohola da. Kokainak ere ehuneko nahiko handia du, eta azkenaldian kanabisaren adikzioa ere handitu da. Jokoak ere hor badaude. Momentu batean gaude non adikzioen mundua asko aldatzen ari den. Adikzioak gurera datoz sortzen direnetik eta urtera. Orduan, orain aldaketa hori bizitzen ari gara. Gauzak ateratzen hasi dira. Sustantzia guztiengatik etortzen dira; speed, MDMA, ketamina... Baina gehiena alkohola.

**Jokoa eta teknologia berriekiko menpekotasuna drogamenpekotasunarekin alderatzen dute. Horrela da?**

Edozein adikzioaren jokaera prozesua berdina da. Ondorioak pertsonaren eta sustantziaren edo jokoaren arabera aldatzen dira, baina portaerazko prozesua berdina da eta tratamendua berdintsuak dira. Jokoaengatik adikzio kasuak agertzen ari dira. Oso ohikoa da, gehienbat gazteengan, menpekotasun askorekin etortzea. Ez bakarrik jokoa; eta denak zaku berdinean. Hori oso zaila da pixkanaka joan behar zarelako. Badira kasuak ere sustantzia batekin arazo batekin datozenak, alkoholarekin esaterako, baina oraindik menpekotasuna gartu ez dutenak. Orduan, pertsona horri kontsumoa kontrolatua



Gizakia Helburu Fundazioko langileak, tartean Andrea Carrillo Juanbeltz. GH



Tratamendu talde bateko psikologoak eta erabiltzaileak. GIZAKIA HELBURU

eta ondo edaten erakusten diogu.

#### **Adikzioen artean badago hobe ku-deatu daitekeena?**

Faktore asko daude, eta faktoreak desberdinak dira pertsonaren arabera. Jokaera aldetik oso berdintsuak dira, baina pertsonaren arabera desberdin eragiten dute pertsona guztiak ez garelako berdinak. Pertsona asko hasieratik irekitzen ausartzen dira eta lana, kakots artean, errazagoa da, eta beste pertsona batzuek lehenengo pausua motibazioa dela eta sustantzia uzteko nahia hori dute, baina beste batzuek sei hilabete behar dute uzteko eta gehiago kostatzen zaie irekitzea. Guztiak zailak edo guztiak errazak dira, pertsonaren arabera.

#### **Zeintzuk dira menpekotasun bat identifikatzeko kontuan izan beharrekoak?**

Sustantzia hori behar duela sentitzen duenean, oso nabaria da beste gauzak edo gustuko dituzten gauza batzuk alde batera uzten dituztelako, isolatzen hasten dira, eta sustantziaren beharra handitzen da. Geroz eta gehiago behar dute. Kontsumitzean lortzen zuten hasierako funtzio hori betetzeko geroz eta gehiago behar dute. Bizitzaren erdigunea bihurtzen da.

#### **Behin tratamendua amaitu ondoren, berrerorikoak egoten dira?**

Guztiz sendatzea utopia da. Saiazen gara pertsonari erakusten bere adikzioa kudeatzen. Oxala sendatzeko makiltxo magikoa izatea eta magiaren bidez pertsona sendatzea. Baina saiatzen garena lortzen da pertsonak haien menpekotasunaren erabilera kudeatzea. Modu horretan berreroriko horiek geroz eta guxtiago izango dira. Tratamenduaren helburua hori da. Askotan berrerorikoak tratamenduan bitartean izaten dira, eta hori ongi etor daiteke landu daitezkeelako arrisku egoerak. Beste batzuetan gerta liteke tratamendua oso ongi joan, eta, azkenean, berreroriko bat izatea. Helburua da hauek oso puntu-lak izatea eta dituen laguntza eskatzea. Horrek esan nahi du prozesuaren beste puntu batean dagoela.

#### **Zein adineko jendea joaten da?**

Suspertun, nerabeen zentroan, 18 eta 21 urte bitarteko jendearekin lan egiten dute. Diagnostikoa egiten dute eta lehenengo urte horietan arazoa nolako den be-

giratzen dute. Hortik aurrera Aldatun eta zentro erresidentzia-lean 70 urtetik gora arte. Ez dago mugarik, egia esan. Bataz beste-koa 30 eta 40 urte bitartean dago. Adin ohikoenak horiek izaten dira.

#### **Zer ondorio psikologiko eragin ditzake edozein menpekotasunak?**

Gehienetan etortzen dira depresio batekin, antsietate askorekin, buru osasunerako arazo askorekin, brote psikiatrikoekin... Gazteak etortzen dira gehienbat broteekin. Ondorioak asko dira. Medikuz zerbitzua dugu eta askotan medikazioaren beharra daukagu. Behintzat, hasierako urratsetan. Gero ikusten badugu diagnostikoa, depresioa, antsietatea edo brote psikiatrikoak izan, sustantziarekin agertzen dela eta behin sustantzia kentzerakoan ez dagoela, orduan medikazioa kentzen zaizkie eta pertsonak horiei aurre egiteko errekurtsuak ditu. Sustantziak tapoi antzeko bat egiten du eta tapoia kentzerakoan agertzen da dena eta puzzle bat bezala osatzen joan behar zara. Hor ikusten ditugu beharrak.

#### **Gerta liteke aurretik buru gaixotasun horiek izatea eta horregatik drogak kontsumitzea, eta kontsumitzean arazo horiek areagotzea?**

Hori da. Dena oso nahasita dago. Helburua da drogak, sustantzia edo adikzioa kentzea eta gero ikusi zer gelditzen den eta pertsona egonkortzen joan. Zaila da. Hasieran dena oso nahasita dago eta ez dakizu depresioa sustantziagatik den edo horrek handitu egin dizun... Hori guztia ikusi behar da eta horregatik oso garrantzitsua da zerbitzuen arteko koordinazioa. Tratamendua ahalik eta hobekien egiteko.

#### **Drogamenpekotasunak oso estereotipatuak daude.**

Estereotipo eta estigma asko daude oraindik. Uste duguna baino normalagoa da adikzio bat garatzea. Faktore asko daude eragiten dituztenak. Ez da gauza bakarra. Ez da alkoholikoaren dugun irudi hori. Azkenean, faktore asko nahasten dira eta faktore koktel horren ondorioa batzuetan adikzio bat garatzea da, eta beste batzuetan ez. Izaera eta izaera garatzeko modua, zer sustantzia den, testuingurua, familia... Gauza asko daude. Biologia ere sartzen da jokoan. Faktore asko daude eta edonork garatu dezake. Potentziala edonork dugu. Gainera, kulturak



Andrea Carrillo Juanbeltz psikologo altsasuarra.

**"SAIATZEN GARENA DA PERTSONAK NORBERAREN ADIZKOAREN KUDEAKETA IZATEA"**

**"NORMALIZATU BEHAR DA; JENDEAK LAGUNTZA BEHAR DUENEAN ESKATU BEHAR DU"**

azkenean bultzatzen gaitu; alkoholarekin, esaterako. Beste arrisku faktore bat da.

#### **Gizarteak zer egin behar du adikzioen aurrean?**

Guk uste dugu hoberena normalizatzea dela. Bai adikzioa bai buru gaixotasunak edonork eduki ditzakegu, eta gauza da arazoa edukita eta identifikatuta laguntza eskatzea joatean lehen bailehen ondorioak gutxitzeko. Normalizatzen bada gizarteak adikzioen arloan arazo bat edukitzea, pertsona azkarrago joango da laguntza eskatzea. Ez da hain arraroa adikzio bat izatea, sustantziak daude, alkohola dago... Gertatu daiteke eta horretarako laguntza dago. Jendeak laguntza behar duenean eskatu behar du. Garrantzitsua, beraz, normalizatzea da. Behar dugu gizarte gisa adikzioen arazoa azalartzea, pentsatzen dena baino askoz normalagoa delako. Ez da ezer gertatzen, gainera azken urtetan daramagun kaosarekin are normalagoa da bakoitzak ahal izan duen moduan kudeatu duelako eta kulturalki kontsumoa oso normalizatua dagoelako. Orduan, oso erraza da. Beraz, mezua da normalizatu behar dela eta laguntza eskatu behar dela.

#### **PANDEMIA**

#### **Nolakoak izan dira pandemia bi urte hauek fundazioan?**

Nahiko astunak eta latzak izan dira, egia esan. Guk ez genuen itxi. Komunitateak lanean jarraitu zuen eta Aldatun ere telematikoki jarraitu genuen. Desberdina izan zen. Zer gertatu zen? Zer eragin zuen gehienbat konfinamenduak? Adikzio askorendako hobe izan zen eten egin zirelako, baina beste asko handitu egin ziren eta tratamenduan zegoen jendea momentu horretan bukatzen ari zena, orain itzultzen ari dira adikzioa areagotu zaielako. Agian momentu-arte ez zuten horren arazorik, baina adikzioa handitu zaie eta orain etortzen ari dira laguntza eskatzea.

#### **Pandemiaren eraginez jende gehiago joaten ari dela nabaritu duzue?**

Adikzioak eragiteko beste faktore bat da orain. Despunteta izaten ari da orain. Beste gauza batzuk egon daitezke ere, bakoitzak bere bizitzan arazoak ditu, baina faktore komun bat izan da pandemia.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

## Kantuz nahi bizi

Aurreko larunbatean, eguraldi bikainez lagunduta, Etxarriko Kantuz taldeko berrogei lagun inguru kaleak alaitzen ibili ziren, udaberriari eta covid-aren ondorengo ohikotasunera itzultzeko keinua eginez. Guztiek erne segitzen zizkioten Maider zuzendariak emandako jarraibideei, Urko akordeoilariaren doinuez lagunduta. Bestalde, taldearen jardunaren antolaketan ezinbestekoak dira Marino "gerentea" eta Martin "azpiegitura arduraduna".

Taldeko kide izateko ez da abesteko gaitasun berezirik eskatzen, nahikoa da gustukoa izatea eta ongi pasatzeko gogoia, eta erretreta hartua izatea. Horrela, taldekideen artean badira abesbatza ibilitakoak, urretxindorren modura goxo eta dotore abesten dutenak, eta badira urteen joanaren ondorioz belaunak nekatzen diren bezala, entzumen gaitasuna murrizten hasia dutenak ere. Batzuek, bikain bereziko dituzte noten sostenituak eta bemolak, beste batzuek Fa nota beharrean La abestuko dute, gehiegi arduratu gabe, eta izanen da Do tonuaren ordezkari Sol gogoz ematen duenik ere. Nolanahi ere, banakako kaosa horiek denak batera jarrita, abesti ederrak sortzeko gaitasuna dute, armonian eta giro jatorrean, bakoitzak bere onena ematen baitu.

## TALDEKO KIDE IZATEKO EZ DA ABESTEKO GAITASUN BEREZIRIK ESKATZEN

Kantu erreperitorio zabala dute, euskal kantutegi tradizioaletik hautatuz urtero berritzen dutena. Lete,

Kantu erreperitorio zabala dute, euskal kantutegi tradizioaletik hautatuz urtero berritzen dutena. Lete,

Lertxundi, Oskorri, Imanol, P.P. Berzaitz, Itoitz, Altxükütarrak eta beste makina bat autore. Horrela bada, gaitegi askotarikoa dute; izan ere, euskarari, maitasunari, Euskal Herriari, Nafarroari, liliei, txoriei eta mendiei, bakean topa egiteari eta bizitzari eta heriotzari bezalako kontuei abesten diete. Gauza ederra! Erramunek abesten duenez, "Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi".

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulua bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

## HARA ZER DIEN

### Udal azpiegiturak sozializatu

#### ALTSASUKO GAZTE ASANBLADA

Urteak dira Altsasuko udal azpiegituraren erabileran arazoak daudela. Udaletxearen partetik zailtasunak, pribatizazioak eta baldintzen gogortzea dira azken urteetan eman direnak. Hau, krisialdi kapitalistaren ondorioz emandako bizi kalitatearen eta okertzea dela eta, herriko langile klaseko kideok, modu batean ala bestean, udal azpiegiturretatik gutxinaka-gutxinaka kanporatuak izaten ari gara:

- Udako igerilekuen prezioak bikoiztu dira.
- Frontoiak itxita daudenez eta oso garestiak direnez, kirolerako eskubidea urratzen da.
- Gure Etxea erabileraren zailtasunak. Udalak espazioaren guztizko kontrola hartu du, erabiltzen den bakoitzean udaltzaingoak ireki eta ixten duelako. Baldintza burokratikoak ezarri dituzte espazioak eskatzeko, eta kontrol soziala areagotu.
- OTA jartzeko proiektua onartuta dago.

- Auzolan taldeak erabiltzen duen bajera egoera penagarrian dago, eta materiala apurtzen ari da.
  - Liburutegia txikia geratu da, ez dira ikasketarako baldintza egokiak bermatzen eta goizetan itxita egoten da.
  - Musikariek espazioarekin arazoak dituzte, entseatzeko tokirik ez dutelako edo udaletxearekin duten hitzarmenak taldeen arteko lehia sustatzen duelako.
- ASANBLADA IREKIA, maiatzaren 21ean, Altsasuko Plazan.



## OBJEKTIBOTIK

### Maiatzak ikuskaritza pasa du

Urteetan maiatza jartzeko lanak gidatu zituen Julio Lopez de Zubiria Larrazak. Bere esanetara iturmendiarrek aldi berean indar egiten zuten maiatza jasotzeko. 20 metro baino gehiagoko pago enborrak jarri ohi dituzte plazaren erdian maiatzaren lehenean. Juliok lekukoa pasa du, baina larunbat eguerdian maiatzara hurbildu eta egoki jarrita zegoen ziurtatu nahi izan zuen. Enborra besoekin inguratuta eta bastoiarekin neurtu zuen, eta oinarriko ziriak egoki sartuta zeudela ikuskatu zuen.



**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhua Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
618 640 056

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

#### Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

#### Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa  
[kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

#### Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

# Eskola mustutzeko eguna iritsi da

Arbizuko eskola publiko berria larunbatean mustuko dute. Ikastetxean bertan 11:00etan ekitaldia egingen dute. Ondoren, egun guztirako prestatutako egitaraua plazan eta herri guztiari zabalik izanen da

**Eneida C. M. / Alfredo A. I.** ARBIZU  
Berriain kaleko 20. zenbakian dago Arbizuko eskola berria. Aurreneko ikasleak 2019ko irailaren 9an hartu zituen, baina Arbizuko eskola komunitateak orain arte ez du eraikina mustutzeko aukerarik izan. Miren Inda Jorajuria eskolako idazkariak azaldu duenez, "2019an eskolaren herena ikasle betetzen hasi ginen. Eskolaren zati batean ikasleak zeuden eta bestean langileak. Hilabeteak aurrera joan ahala pitteka-pitteka eskola ikasle betetzen joan zen. Orduan ezin izan zen mustu eta ondoren pandemia etorri zelako". Indak gogorarazi du pandemiak joan den ikasturtean neurri zorrotzak ekarri zituen eta "orain iritsi da eskola mustutzeko momentua, elkarri aurpegiak ikusteko momentua".

Mustutze ekitaldia antolatzeako ardura Arbizuko eskola publikoko guraso elkartearena izan da. Nerea Caballe Aiestaran da kideetako bat. "Orain ospakizunak antolatzea posible denez, guraso elkartearen animatu ginen", esan du. Larunbatean, mustutze ekitaldira gerturatutako jende guztiari harrera egingen diete dantzari eta txistulariek eskolan bertan. Ondoren, Caballek azaldu duenez, "eskola berriaren sortze prozesuan eragina izan duten gurasoek eta jende guztiak hitza hartuko dute". Horien artean daude zuzendaria, ikasleak, gurasoak eta udal eta gobernuko ordezkariak.

Eskolaren mustutze egitarauak Arbizuko plazan izanen du segida. "Plazan egitea erabaki dugu eskolaren mustutze ospakizuna, herri guztiari parte hartzeko gonbidapen zabala egiteko. Zenbat eta jende gehiago etorri, orduan eta giro handiagoa izanen da", azaldu du Caballek. Eskola komunitatea osatzen duten 200 bat pertsonak eman dute izena bazkarirako. Bestalde, argi orduak



Ikasleak Arbizu aztertzen eskola lurralde proiektuaren barruan. ARBIZUKO ESKOLA

## Egitaraua

- 11:00** Harrera eta mustutzea, eskolan.
- 11:45** Aizkolari txikien erakustaldia, plazan.
- 12:00-14:00** Puzgarriak eta aatea, trikitilariak girotuta, plazan.
- 14:00** Bazkaria, plazan.
- 16:00-18:00** Puzgarria, plazan.
- 18:30** Dantzaldia Xaibor dj-ekin, plazan.

luzatzen ari direnez, 21:30era arte luzatuko dute ospakizuna.

## Eskolaz

Arbizuko ikastetxe publikoak 3 eta 12 urte arteko 118 ikasle ditu gaur egun. Eskola hiru komunitatetan antolatuta dago: txikien komunitatea, ertainena eta handiena. Indak azaldu duenez, "pandemiagatik desberdin jokatuko behar izan dugu. Alde batetik, txikien komunitatea dago. Eta Lehen Hezkuntzan 6 eta 12 urte bitarte blokeka egin dugu lan ikasturte honetan: 1. eta 2. mai-

len blokea, 3. eta 4. mailen blokea eta 5. eta 6. mailena". Ikastetxe zaharretik berrirako jauzia handia izan zen. "Prozesuan lan pila egon da denon aldetik. Emaitzak oso onak izan dira eta oso pozik gaude. Poztasun hori dugu gurasoek, zuzendaritzak eta udalak", azaldu du guraso elkarteak ki-deak.

Eskolan matrikulak gora egin zuten eta karrika Nagusiko eraikinak ez zuten Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza osoko ikasleria hartzeko gaitasunik. Horregatik, Lehen Hezkuntzako 4. maila bukatu ondoren ikasleak Etxarri Aranazko eskolara joan behar zuten. Eraikin berriak bi hezkuntza zikloak hartzeko gaitasuna du. 4000 m<sup>2</sup>-ko azalera ditu. Hura eraikitzeko hiru milioi euro inguru bideratu zituen Hezkuntza Departamentuak. Irakasleek, gurasoek eta udalak ikastetxearen diseinuan parte hartu zuten. eta Eskolaren pedagogia proiektua ere aldi berean landu zuten. Eskola berriak apenas du energia kontsumorik eta guzuzen banaketagatik eta ekipamenduengatik hezkuntza metodologia berriak ezartzeko aukera ematen du.



Joan den urteko sarituak Olatzagutian elkartu ziren. ARTXIBOA

## Zurrunmuru eta estereotipoen kontrako hitzezko sendagai bila

Anitzarteanek antolatutako literatur lehiaketan idazlanak garagarriaren 30era arte aurkeztu daitezke

### SAKANA

Sakanako Mankomunitatearen Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak lau balore zabaltzen ditu bere lanaren bidez: berdintasuna, aniztasuna, errespetua eta diskriminazio eza. Aniztasunean elkarbizitzaren aldeko lana egiten du. Eta horren kontra zuzenean egiten dute jende askoren ahotan dauden aurre iritziak, estereotipoak eta zurrunmuruak. *Zurrunmuruaren jasari, baloreak aterki* lelopean Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak Zurrunmuruaren Kontrako Ipuin Laburren III. Lehiaketa antolatu du eta sakandarrak aipatutako lau baloreak bulkatuko dituen istorio bat sortzera gonbidatu ditu. "Migratu duten pertsonen buruz ditugun ideiak eraldatuko dituzten istorioak sortzera. Aniztasunean elkarbizitzaren alde egingen duen istorio bat eraikitzea azken finean, bestearekiko zurrunmuru eta arreritiz libre izango dena. Azken finean, eszenatoki berri bat asmatzea zeinetan aniztasunak, tratua eta aukera berdintasunak, eta bestearekin elkarbizitzak dakarzkigun onurak kontatuko den" azaldu du Begoña Zestau Baraibar teknikariak. Zehaztu duenez, "helburua da kulturartekotasuna eta kohesio sozialaren alde, nola bazterkeriaren kontra, arrazakeria eta xenofobiaren kontrako" testuak jasotzea.

### Oinarriak

Lehiaketan parte hartu nahi duten sakandarrek gaztelaniaz

edo euskaraz aurkeztu ditzakete haien narrazioak. Haien oinarrian honakoak egon daitezke: aniztasuna, berdintasuna, errespetua, diskriminazio eza, elkarbizitza, kulturartekotasuna, arrazakeriaren, aurre iritzi eta zurrunmuruaren kontrako borroka, aniztasunaren ekarpen eta abantailak... Idazlanek, gehienez, lau orrialdeko luzera izan behar dute eta Arial letra tipoarekin idatzita eta 12ko hizki tamaina izan behar dute. Lanak jatorrizkoak, berriak, eta beste lehiaketetan ez sarituak izan ez direnak izan beharko dute.

Narrazioak [anitzartean@gmail.com](mailto:anitzartean@gmail.com) e-posta helbidera bidali behar dira. Bidalketa bi pdf artxiboz osatuta egon behar du. Aurrenekoak parte hartzailearen datu pertsonalak eta harekin harremanetan jartzeko telefonoa jarri behar dira. Pdf artxibo horren izenburua honakoa izan behar du: *Zurrunmuruaren kontrako ipuin laburren III lehiaketa* eta izengoiti bat. Bigarren pdf-an, berriz, izenburu eta izengoiti bera, eta ipuinaren izena, hizkuntza eta parte hartzailearen adin tartea (16 urtetik gora eta behera).

Zerbitzuak osatuko duen epaimahai bateko irakurriko ditu lehiaketara aurkeztutako narrazio laburrak, eta hura izanen da sarituak aukeratu dituenak. Haien berri irailean emanen du. Guztiek ere Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteari atxikitako establezimenduetan gastatzeko txartelak eskuratuko dituzte.

## Bi lan publiko eskaintza jakinarazi dituzte

Administrazio publikoan langileen behin behinekotasun handiena duen estatua da Espainia. Europatik ohartarazpena jaso ondoren, Espainiako Gobernuak Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak onartu zituen abenduaren 28ko 20/2021 Legearen bidez. Horri jarraituz, Etxarri Aranatz Aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Ergoienako Udalak 2022. urterako lan publikoaren eskaintzaren berri eman dute.

Mankomunitatean bost lanposturen deialdia egin dute. Alde batetik, bi gizarte hezitzaile eta gizarte langile eta familia langile bana kontratatu nahi dituzte. Lau langileek lanaldi osoko kontratu laborala izanen dute eta euskarazko C1 ezagutza beharko dute. Lanpostuak txanda irekiko prozedura bidez beteko dira. Mankomunitateak bosgarren lanpostu bat du betetzeko: familia langilearena. Lanaldi osoko funtzionarioa izanen da oposizio lehiaketa bidez lanpostua eskuratzeko duenak. Plaza betetzeko aurreikuspen bera egin dute mankomunitatean. Bestetik, Ergoienako Udalak zerbitzu anitzetako enplegatua kontratatuko du eta, horretarako, lehiaketa deituko du. Lanpostuak 2023-2024an betetzea aurreikusten da.



Ezkerrean, goian, Izurdiagako Geltoki auzoa eta behean, San Joan auzoko biribilgunea. ARAKILGO UDALA

# Autopistarako irteerak badu proiektua

Irurtzungo Udalaren bi eskaera historiko ziren herrian saihsbidea egitea eta A-15 autopistara sartzeko adar bat egitea Iruñerako noranzkoan. Aurreneko lanak egiten ari dira. Atzenekoaren trazatua behin betiko onartu du gobernuak

### IZURDIAGA

Urritzola, Errotz, Izurdiaga eta Irurtzundik ez dute Iruñerako autopista hartzeko sarbiderik gertu. Beraz, auto eta kamioi gidariek Irurtzun zeharkatu eta NA-2410 errepidea hartu behar dute hiriburura joan nahi badute. Horrek Irurtzun erdigunean trafiko handia izatea ekarri du. Martxoaren 7az geroztik eraiki-

tzen ari diren Irurtzungo saihsbideak neurri batean arazoa zerbait arinduko luke, baina ez guztiz. Horregatik, udalak gobernuari eskatu zion saihsbidearekin batera A-15 autopistarako sarbidea egitea Izurdiagako saihsbidea baliatuta.

Lurralde Kohesio Departamentuak Izurdiagako saihsbidea eta autopista batzeko

hiru aukera aztertu zituen: errepide bat zuzenean, itxaron erre zentralarekiko intersektzioa eta biribilgunea. Azken horren alde egin du departamentuak, "segurtasun-berme handiagoak eskaintzen baititu itxaron-errei zentralarekiko intersektzioak baino, alboko talka-arriskua ezabatzen baita. Gainera, hala lursailen afektzioa

nola kostu ekonomikoa antzekoak dira bi konponbideetan.". Izurdiagako San Joan auzotik saihsbideak gora egiten du trenbide gainetik pasatzeko. Aldapa bukatzen den lekuan, Txokoton, Arraizagako bidea hartzeko irteera bat du saihsbideak, han egingen dute biribilgunea. Handik ekialderantz, autopistarantz doan den errepide berri bat aterako da. Autopistarekin bat egin arte 915 bat metroko luzera izanen du.

### Jendaurrean

A-15era sartzeko adar berria egiteko lurrak desjabetu behar dira eta ukitutako ondasunen zerrenda ere argitaratu du departamentuak. Guztira bederatzita dira, guztira 13.661 m<sup>2</sup>-ko azalera dutenak. Proiektua jendaurrean hilabetez egonen da, bai proiektuaren eduki teknikoari, egokitzat jotzen diren ohar edo alegazioak egiteko, idatziz. Interesdunek eskura dute proiektua Lurralde Kohesiorako Departamentuko Herri lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren web orrian eta Arakilgo udaletxean.

Gaur egun eraikitzen ari diren Irurtzungo saihsbideko lanek 1.124.594,98 euroko aurrekontua dute, lanak aurten despedituko dira. Nafarroako Gobernuaren asmoa da A-15 autopistarako lotura heldu den urtean hastea. Aurreikusitako lanek ere milioi bat euro inguruko aurrekontua izanen dute.

Gasoleo A ibilgailuentzat  
Gasoleo B nekazaritzarako  
eta kalefakziorako

[www.iparoil.com](http://www.iparoil.com)

**IPAR OIL**

**GASOLEO BANAKETA**

**Sakanako bailara**

**Tel. 620 143430**

Langraiz Oka	Santurtzi	Urnieta
Los Llanos industriagunea 01230 Langraiz Oka (Araba) 945 371358 • 648 250975	Aparkabisa industriagunea 48980 Santurtzi (Bizkaia) 945 371358 • 696 525761	Erratzu industriagunea - 201 20130 Urnieta (Gipuzkoa) 943 330311 • 646 716256

# Euskaraldian Ariguneek izena emateko aukera

Euskararen erabilera handitzea helburu duen ariketa kolektiboan mota guztietako entitateek eman dezakete izena asteazkenetik aurrera. Aurrekoan parte hartu zenutenek beraien datuak eguneratu ditzakete. 2020an 347 Arigune izan ziren

## SAKANA

Belarriprest eta Ahobizi izan ziren Euskaraldiarekin ikasi genituen aurreko hitzak. Ondoren etorri zen Arigune. Azken hitz horren bidez euskaraz aitzeko guneak identifikatzen dira. Espazio horiek "euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro, izan entitate barruan edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean. Talde horietako kideek ahobizi eta belarriprest modura jardungo dute Euskaraldiak irauten duen bitartean, baina ariketa modu kolektiboan egingen dute ariguneetan". Erakunde publikoak, gizarte eragileak, enpresak, kooperatibak, kultur eta kirol elkarteak eta abar izan daitezke Arigune.

Hara joan eta ziur euskaraz hartuko zaituztela, berme hori eskatzen dute Ariguneek. Figura hori 2020an mustu zuen Euskaraldiak eta Sakanan 347 Arigune sortu ziren. Aurreko edizioan izena eman zutenek bere parte hartzeko nahia berretsi eta datuak eguneratu besterik ez dute egin beharko. Arigune berri gisa izena eman nahi dutenek, berriz, [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) webgunera jo dezakete. Eta, bestela, herriko Euskaraldia batzordearekin edo Sakanako



Zangitu fanfarrea joan den urteko Euskaraldian arigune izan zen. ARTXIBOA

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuarekin harremanetan jar daiteke (948 464 840 edo [euskara2@sakana-mank.eus](mailto:euskara2@sakana-mank.eus)).

## Zehatz

Ariguneak izan daitezke entitate baten baitan ohiko dinamika duten eta kide guztiek gutxienez euskara ulertzen duten taldeak, esaterako, enpresa bateko departamentua, atalak, ekipoak, sekzioak, zerbitzuak, taldeak... Edo, arigunea izan daiteke baita ere entitatean herritarrekiko harreman espazioa, uneoro belarriprest

edo ahobizi bat egongo dela bermatzen bada; hau da, herritarrek uneoro euskaraz artatuak izateko bermea badute (jendaurreko edo harrera postuak, supermerkatuetako kutzak, telefono bidezko arreten arduradunak, tabernariak, dendariak...). Helburu nagusia entitate horien harremanetan euskararen erabilera handitzea da. Parte hartzeko, zuzendaritzaren eta entitateko gainontzeko kideen inplikazioa beharko da. Ariguneak Euskaraldian ikur batekin egoiki identifikatuta egonen dira.

## Euskarari "bulkada berria" emateko, euskaltzaleen bilera

Asteazkenean, 18:00etan, Arbizuko udaletxeko bilera irekita gonbidatu dituzte euskaltzale sakandarrak

## SAKANA

Ibarreko euskaltzaleak eta euskararekin kezka duten herritarrek elkartu eta elkarrekin euskararen egoera Sakanan zein den hausnartzera gonbidatu dituzte. Bilerara joandakoen interesetik eta sortuko den diagnostiko horretatik abiatuta "ea zer gogo daukagun euskararen normalizazioari Sakanan beste bulkada bat emateko. Gonbidapen zeharo irekia da", azaldu du Urko Aierbe arbizuarrak. Bera Euskal Herrian Euskarazko kidea da eta eragile hori da, kezka bera duten beste euskaltzale arbizuar batzuekin batera, bilera deitu dutenak.

Aierbek azaldu duenez, "Sakanan euskara berreskuratzeko azken hamarkadetan egindako lana asko da zalantzarik gabe. Euskaltzaleon ekimenez euskararen ezagutza eta erabilera handitu dira, euskarak galdutako eremuak berreskuratu ditu, garai berriek ekarri dizkiguten erronka askotan euskara txertatzen asmatu dugu..." Hala ere, Aierbek gaineratu du "asko da lortutakoa, baina era berean, asko da egiteko duguna. Oraindik ere ezin gara euskaraz normaltasunez bizi Sakana osoan eta eremu guztietan". Aldi berean, "ez dira gutxi ortzi mugan euskarari azaltzen ari zaizkion erronkak eta mehatxuak. Mundua asko aldatzen ari da teknologia berriekin, azkar eta sakon".

Horrekin batera, "Euskal Herri osoan bezala, azken urteetan

euskalgintzak eta euskararen aldeko lanak apalaldi kezkarria bizi duela nabarmena da". Gaineratu duenez, "ez da Sakanan bakarrik dagoen kezka, Euskal Herri guztian dagoen kezka orokorra da. Bereziki herrietako dinamiketan, herrietan garatzen diren egitasmoetan. Korrikarekin eta Euskaraldiarekin herrietan aktibazio bat dago, baina behin horiek pasatuta, beherantz egiten du".

Bileraren deitzaileen iritziz "egiteko asko dago oraindik eta horri erreparatu nahi diogu". Bide batez, "beste marko bat" eskaini nahi dute "Sakanako euskaltzaleak elkartzeko eta hausnartzeko. Dagoen borondatearen arabera. Aukerak eta gogoak ikusten badira euskaren normalizazioari Sakanan beste bulkada bat emateko, aurrera". Aierbek esan duenez, "Euskal Herriko euskaltzalegoan kezka dago. Beharra sumatzen da herrietan eta eskualdeetan euskalgintzari bulkada berri bat emateko. Hau da, euskararen aldeko tokiko ekimenei eta egitasmoei bulkada berri bat emateko". Azaldu duenez, beste herri eta eskualdeetan antzeko pausoak ematen ari dira.

Bastetik, aipatutako kezkararekin lotuz Euskara aurrera leloarekin manifestazioa egingen da Donostian hilaren 21ean, 17:30ean, Antiguoko tuneletik abiatuta. Gazte Euskaltzaleek egin zuten lehen deialdia eta euskalgintzako hainbat eragilek bat egin dute.

EGUN ON  
SAKANA  
egunero 10:00etatik aurrera  
goizetako konpainiarik hoberena!

107.3 FM  
etia GUAIXE.EUS

beleixe



## Burunda mendebaldean osasunak "okerrera"

Osasun eskualdeko arazo "larria behingoz konpontzeko" eskatu diote Nafarroako Gobernuari

ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Osasunbideko arduradunek lehenik Altsasun egindako bileran joan den urteko otsailaren 12an. Eta Maria Chivite Navascuesek ondoren Irurtzungo kultur etxean apirilaren 4an. Burunda mendebaldeko osasun eskualdeko gabeziak konpontzeko promesak egin zituzten batzuek eta besteak. Horiek ez dira bete eta egoerak "okerretik okerrera" egin duela salatu dute Javier Paz Miño Altsasuko Oinarrizko Osasun Eskualdeko Osasun Kontseiluko lehendakariak eta Altsasuko Udaleko zinegotziak, Joseba Viñete Askargorta Olatzagutiko alkateak eta Olatz Irizar Martinez Ziordiko alkateak. Hirurek azaldu dutenez, "gure biztanleen osasuna eta gure herrien etorkizuna jokoan dago eta, horregatik, gobernuari, urgentziaz, arazo larria serio hartu dezan eta behingoz konpondu dezan eskatzen diogu".

Azaldu dutenez, Altsasuko osasun etxean sei mediku beharrean hiru daude. Olatzagutian astegunetan kontsulta zabaldu beharrean astean hirutan zabalitzen da. Eta beste bi egunetan larrialdia egonez gero, Altsasutik joan behar dira. Eta Ziordian ez dago medikurik. Gaztigatu dutenez, "mediku falta horiek eguneko ordezkapenekin betetzen dira eta batzuetan ez da inolr etortzen. Behin baino gehiagotan 'urgentziak baino ez ditugu artatuko' jartzen duen papera jarzera behartuak egon dira.

Hiru udal ordezkariak gaztigatu dutenez, "aspertuta eta haserre gaude gure biztanleriari zuzenean eragiten dion zerbitzu publiko honen kalitate eskasarekin. Medikuri onak ditugu eta lan handia egiten ari dira, baina medikurik hoberenak ere ezin ditugu artatu hain baliabide eskasekin zonaldean ditugun beharrak.



Iturmendiarrak plazan larunbat eguerdian.

## Udal egitasmoak dirulaguntzen zain

Finantza laguntza jasoz gero udalak egin nahi lituzkeen artean daude: Santa Marina kaleko sareak eta zorua berritu, frontoiko teilatuko itajurak konpondu eta hura txukundu eta baso eta nekazaritza azpiegiturak hobetu

ITURMENDI

Aurten Iturmendiko Udalaren aurrekontua bere ohiko kopuruetan dago. Zehazki, 354.211,16 euro kudeatuko ditu. Horrek esan nahi du inbertsio handirik ez dela izanen. Inbertsioetarako Iturmendiko Udalak 41.753,74 euro bideratu ditu. Imanol Arbizu Perpiña alkateak azaldu duenez, "ditugun proiektuak egiteko dirulaguntzak behar ditugu derrigorrez". Azaldu duenez, herriaren hegoaldean dagoen eta elizara daraman Santa Marina kaleko sareak eta zorua da berritzea falta den bakarra. Lan hori egin ahal izateko Toki Azpiegitura Planaren finantzaketa espero dute. 2020ko garilean des-

peditu ziren plaza eta inguruko kaleak berritzeko inbertsioaren %70eko laguntza jaso zuen Iturmendiko Udalak.

Arbizuk argitu duenez, "frontoien teilatua itajurak daude eta berandu baino lehen konpondu nahi dugu, bestela gero konponketa garestiagoa izanen baita. Gainera, iturmendiarrak frontoia erabiltzen duten zerbait da". Horretarako ere dirulaguntza eskatuko du udalak. Bide batez, frontoia margotu, harmailak egokitu eta guztia txukundu utzi nahiko luke udalak. Kirol azpiegituran joan den uretan LED argiak jarri zituzten. Eta argiteria publikoan Estafeta kalea eta beste puntu batzuk bes-

terik ez lirateke faltako bonbillak ordezkatzeko. Bestetik, urtero bezala, udalaren asmoa da basoko eta lehen sektoretan azpiegiturretan inbertsioak egitea. Horretarako, dirulaguntza eskaerak egin dizkiote Nafarroako Gobernuari.

### Etxeak eta beste

Medikuaren etxea zeneko teilatua berritu zuen udalak joan den urtean. Eraikinaren beheko solairuan dago mediku kontsultategia eta goian medikuaren etxea zena. Iturmendiko Udalaren aspaldiko asmoa da goiko solairuan zegoen 160 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza bitan banatzea eta bi etxebizitza sortzea, alokatzeko edo

gizarte larrialdi egoeran erabiltzeko. Alkateak azaldu duenez, ideia horri berriro heldu diote eta lanak egiteko finantzabideak zein izan daitezkeen aztertzen ari dira.

Hala ere, Santi Agirre Galartza jubilatatu ondoren, udalak lehenbailehen egin nahi duena almin-tea kontratatzeke oposizio lehian gabetza da. "Hori azkartu nahian gabiltza. Gaur egun dirulaguntza baten bidez kontratatuta dugu langile bat, baina maiatzean bukatzen zaio kontratua". Bestetik, udal eraikinak eta hainbat etxebizitza berotzeko proiektua, berokuntza sarea, "momentuz gelditu dugu. Zer egin erabakitzeke herritarren artean berogailu kontsumoaren inguruko inkesta bat egin nahi genuke".

Bestalde, iturmendiarrak bi festa ospatu berri dituzte. Maiatzaren lehenarekin pagoa jaso zuten plazan eta horrek jendetza erakarri zuen herrira. Eta, bestetik, San Migel festetan giro ederra izan zen joan den asteburuan. Pandemiaren okerrera pasata, festa egun horiek normal ospatzea gauza handia dela azaldu Arbizuk. Jakinarazi duenez, "aurreko bi urteetan garilean festarik ez dugunez izan, aurten festetarako diru gehiago bideratu dugu". Azkenik, aurreratu du aurten 200 urte betetzen direla Sebastian Fernandez de Lezeta, Dos Pelos, eta bere soldaduak fusilatu zituztela eta hori oroitarazteko ekimenen bat egitea dute buruan.

## MEDIKUAREN ETXEAN BI ETXEBIZITZA NOLA EGIN ERE AZTERTZEN ARI DA ITURMENDIKO UDALA

### Irurtzunen festetako etxajua piztuko duenaren bila

Irurtzundarrek parte hartze prozesu baten bidez erabakiko dute aurtengo festei hasiera zeinek emanen dion. Kultur Kontseiluari proposamena aurkeztu nahi diotenek [www.irurtzun.eus](http://www.irurtzun.eus) webgunean dagoen proposamenen dokumentua bete eta maiatzaren 30 baino lehen kultur etxean aurkeztu behar dute (kultur teknikariari edo [\[irurtzun.eus\]\(http://www.irurtzun.eus\) e-postara bidaliz\). Hautagaia proposatzearekin batera festen hasierako etxajua piztuko haren merituak aipatu behar dira. Proposatutako pertsona eta taldeen merezimenduak Kultur Kontseiluak aztertuko ditu garagartzaroaren Iean. Eta gehienez hiru eta gutxienez bi hautagai aukeratu ditugu bidez. Eta irurtzundarrek hautagaie-tako baten alde botoa emateko aukera izanen dute garagartzaroaren 17tik 23ra. Irurtzungo festak garilaren 20an hasiko dira.](mailto:kulturetxea@irur-</a></p>
</div>
<div data-bbox=)

**PORTUKO**

Altsasu: 948 563 822 (denda)  
948 467 153 (lantegia)  
Etxarri Aranatz: 948 460 988

## Monarkia eta errepublika artean aukeratzeko

Estatuko Monarkia ala Errepublikak Herri Kontsultaren Plataformak sustatuta, estatuaren formari buruzko herri galdeketa ez loteslea egingen dute larunbatean. Hautesontzietako bat Altsasuko Iortia plazan egonen da. Bi sistemetako baten alde botoa eman nahi duenak 10:00etatik 14:00etara pasa beharko du handik. 16 urtetik gorakoek parte har dezakete.

Galdeketaaren plataforma sustatzaileko kideek adierazi dutenez, "gaur egungo biztanle gehienek ez zuten 1978ko Konstituzioa bozkatzeko aukerarik izan; baina bozkatu ahal izan zuenak ez zuen estatu forma aukeratzeko aukerarik izan". Horregatik, sortu dute plataforma hainbat erakundek eta kolektibok, "herritarrek bi aukera horiei buruzko iritzia eman ahal izateko".

Plataformako kideek esan dutenez, "kontsulta hau adierazpen bide bat da, herritarren parte hartzerako bide bat, bai eta egin-tza demokratiko bat ere, zeinarekin, gainera, dagokigun guztiari buruz erabakitzeke dugun eskubidea baliatzen dugun". Nabarmendu dutenez, larunbateko galdeketa "parte hartze demokratikoko eta herri adierazpenaren jardunaldi handia izango da". Herritarrek parte hartzera gonbidatu dituzte.



## Osasun agintariei kexa adieraziko die plataformak

Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasuko osasun etxeen parean hilaren 3rako kontzentrazio bana deitu zuen lehenik. Ondoren Ibarreko udal guztietan osasun publikoaren aldeko mozioa aurkeztu zuen. Eta osasun publikoaren aldeko lan jarraitua egiteko asmoarekin jarraituz, Sakanako Osasun Publikoaren aldeko Plataformak asteleheneko 16:30era kontzentrazioa deitu du Irurtzuno kultur etxearen ondoan. Plataformatik jakinarazi dutenez, egun horretan Osasunbideako arduradunak Irurtzunera etorriko dira. Udal ordezkariekin elkartzeko dira Nafarroako Gobernua lehen arretaren arloan zer lan egiten ari den azaltzeko. Bide batez, udal ordezkariengandik herrietan egon daitezkeen gabezien eta premien berri jaso nahi dituzte. Plataformako kideak haien eskaerak helarazten saiatuko dira eta *Osasun etxea zaindu* leloa duen pankarta zabalduko dute.

## DUELA 25 URTE...



## San Isidroko aatea

Urteko lau egun jakinetan aatea izaten da Arbizun. Horietako egun bat San Isidro da, maiatzaren 15a. Egundik jendea plazara joan eta koadrilarekin batera merendua egiten du. Jatekoa bultzatzeko udalak banatzen duen ardoa ibiltzen dute. Urte hartan Ximon Razkin eta Jose Luis Razkin izan ziren buuzayek, eta haiek banatu zuten ardoa arbizuarren artean. Emakumezkoen presentzia ez zen oso handia izan.

# Tren sozialaren aldeko ikerketa egiteko diru bila

Trenaren Aldeko Alternatibak Abiadura Handiko Trenari alternatiba izanen den ingeniari-tza azterketa bat egin nahi du. Hura garatzeko 12.000 euro lortu nahi ditu ekimenak eta Kukumiku plataformaren bidez crowdfunding kanpaina martxan jarri du

SAKANA

Lau plataformek osatu dute Trenaren Aldeko Alternatiba ekimena: Araba Tren Sozialaren Alde, Miranda Por el Tren (Burgos), Bureba es Futuro (Burgos) eta Nafarroa Trenaren Alde. Guztiek tren publiko eta soziala batzen dute eta Abiadura Handiko Tren egitasmoen kontra daude. Horregatik, Mediterraneo eta Atlantikoko trenbide korridoreen alternatiben azterketa egin nahi dute Burgosen, Araban eta Nafarroan. Hau da, trenbideetako ingeniari-tza azterketa bat nahi dute, zeinak bermatuko duen alternatiba bat garatzea. Ekimeneko kideek adierazi dutenez, "hori guztia, kontsentsu handiagorekin egingo da eta lurraldearen kohesioa ziurtatuko duena bertako biztanleen beharretara egokitua". Alternatiba egiterakoan pertsonen eta merkantzien garraioa bateragarria izatea eta ingurumen inpaktu "askoz txikiagoak" eragitea bilatuko dute.

Trenaren Aldeko Alternatibatik azaldu dutenez, azterketa kanal eta portuetako hiru ingeniari-ekin egingen dute, 50 urte baino gehiagoko eskarmentua dutenak garraio arloan. Egileetako batzuk aurretik gaitasun handiko bide azpiegituren eta trenbide azpiegituren alternatibak aztertzeke eta aholkatzeko lanak egin dituzte, esaterako, Euskal Y proiektuaren inguruan. Jaso nahi duten diruaren laurdena dagoeneko eskuratu dute. Ekarpenak Kukumiki plataformaren bidez egin behar dira (<https://labur.eus/FmBR2>)

## Helburua

Zerbitzuaren kalitatea eta trenbideko garraioaren eraginkortasuna hobetzeko "batez ere egungo trazadura modernizatu eta abiadura handira egokitu" nahi dute. Hirukoteak teknikoki bideragarria izango den tren



Asier Oleaga eta Nerea Viana, Sakanako Trenaren aldeko alternatibako kideak.

## ERAGINKORTASUNA HOBETZEKO: "EGUNGO TRAZADURA BERRITU ETA ABIADURA HANDIRA EGOKITU"

sozialaren proposamena garatuko du. Nafarroako trenbide bazarreko zatian, trenbidea bikoiztea proposatuko da. Hori guztia, azpiegituran, teknologian eta logistikan, lehiakor eta modernizatua den tren bat izateko, aldaketa modala eragingo duena, batez ere errepidetik trenbiderantz, garraioaren egoera, izaera eta asmo desberdinetan. Garraio publiko, sozial, eraginkor eta benetan jasagarri baterantz.

Ekimenetik aurreikusi dutenez, landuko duten azterlanak "arrazoizko kostua izan behar du, proiektatutako azpiegiturak baino askoz txikiagoa, azpiegitura horiek trazatu berriak planteatzen baitituzte". Gaineratu dutenez, "erabat berria den obra batek baino nabarmen inpaktu txikiagoa eragin behar du, gizar-tean eta ingurumenean, lehen-dik dauden azpiegiturak ahalik

eta gehien hobetu eta egokitu behar direlako". Gogorazi dutenez, "desinbertsioren eraginez, egungo lineak pixkanaka bertan behera uztearen ondoriozko trenbide zabor berria sortzea sailhestuko da, linea horiek zerbitzu ematen baitiete herritar guztiei eta salgaiak ere garraiatzen baitituzte".

Baliabide ekonomiko publikoen "aprobetxamendu eta efizientzia onena" bilatzen dute azterlanarekin. Ziurtatu dutenez, "egungo tren azpiegituran dauden hiritzaintza arazoak eta oztoko fisikoak, zaratak eta abar kentzeko inbertsioak ez lirateke egingen aurreikusitako abiadura handiko tren egiten bada". Azken finean, ibilbide labur, ertain eta luzeko edukiera eta tren bidezko salgaien garraioa hobetzea, bidaiarien eta salgaien trenen abiadura altuaren arteko bateragarritasuna lortu nahi dituzte, logistika edo ekoizpen zentroetarako konexioak kontutan hartuta. Inge-niari-ekin lana osatzeko, herrietan aurkezpenak egiten ari dira jendeak gaur egungo trenbideari eta egitasmoari ikusten dizkieten akatsak esan eta ekarpenak egiteko.



Umeak ludotekan jolasten. TXANTXARI UDAL LUDOTEKA

# Ludoteka Intxostiapuntara

Ludotekaren egoitza berria Intxostiapunta gazte gunearen beheko solairuan egonen da. Heldu den kurtsoan aldatuko da. Eraikin berean izanen diren gazteriaren, ludotekaren eta musika eskolaren arteko sinergiak sustatuko ditu udalak

## Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Txantxari udal ludoteka Intxostiapunta kokatzea erabaki zuen Altsasuko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak maiatzaren 2an. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, "ludoteka zerbitzuak berak hainbat legegintzalditan egindako eskaria da onartutako lekualdaketa". Ludotekak 25 urte bete zituenean, 2018an, udaletik jakinarazi zen ludotekaren solairu berean dagoen epaitegia Erkuden eta Altzania kaleko bidegurutzean dagoen udal eraikin batera aldatzeko asmoa zegoela, guztia ludotekak hartzeko. Horrek, jakina, egoitza berria egokitzea zekarren. Pandemiarekin guztia gelditu zen eta, ondoren, udalak beste ikuspuntu batetik hartu du gaia eta ludoteka bera Intxostiapunta gazte gunearen beheko solairura lekualdatzea erabaki du.

## Zergatiak

Ollok azaldu duenez, Garbitoki eraikineko gaur egungo kokape-

nak hainbat arazo ditu. "Hasteko kokapen bera. Izan ere, zerbitzuaren erabiltzaileendako arriskua dago, lokalaren ondoan oinezkoendako espazio gutxi dagoelako espaloian. Familia pila elkartzeko dira sarreraren, mugimendu handia dago eta haur pila. Gartzia Ximenez kaletik hirigunera joaten diren ibilgailuak atetik pasatzen dira". Garbitoki

eraikinaren lehen solairuan dago ludoteka, baina igogailua duenez, irisgarritasun irizpidea betetzen du. Ez, ordea, komunena, ludotekatik kanpo baitaude, solairuko ezkaratzean.

Lekualdatzeari esker, "segurtasun handiagoa izango dugu eta oinezkoendako gune bat egongo da zerbitzuaren sarreraren ondoan". Udalaren iritziz, ludoteka

beti egonen da hobe beheko solairu batean. "Intxostiapunta gazte gunearen ondoan patio bat dago eta horrek ludotekaren jarduera aukerak zabaltzen ditu", gaineratu du Ollok.

Alkateak gogorarazi du gazte guneko beheko solairuak haur eskola hartu zuela 2015eko sutearen ondorioz. Udalak komunak egokitu zituen egoitzaren barruan egoteko eta, beraz, lan hori arurreratuta du. Haur eskola egungo egoitzara joan ondoren jaso zen pareta botatzea besterik ez da egin behar beheko solairu guztia espazio bakar bat bihurtzeko. Bestalde, han dagoen bionboak espazioak sortzeko aukera emango du. Ezin ahaztu ere, eraikin berria dela.

## Elkarlana

Eraikin berean gazte gunea eta musika eskola daudenez, han haur eta gazteen familia pila elkartzeko dira. Haurrak beheko solairutik goikora, gazte txokora pasako, lirake. Alkateak nabarmendu duenez, "Intxostiapunta beheko solairura lekualdatzeak aukera emango du ludoteka eta Gazteria zerbitzuen artean sinergia handiagoak sortzeko, baita bi zerbitzuen erabiltzaileen artean ere, zerbitzu horiek lotura zuzena baitute elkarren artean". Gazte txokoa dauden sukalde edo ordenagailuak ludotekaren hainbat ekintza egiteko baliagarriak lirake. Ludoteka ordutegitik kanpo espazioa erabilgarri geldituko da. Musika eskolarekin ere sinergiak sortuko direla ere garbi dute udaletan. Batzuetan haur handienekin joan dira musika eskolara bisitan. Egoitza berean egonda, entzunaldietara maizago joan daitezke, esaterako.

Zerbitzuen artean elkarlana sakontzeko aukera izanen dela gaztigatu dute udaletik. Eta sinergiaren aurrekaria ere gogorazi dute: Garbitoki eraikinean, ludoteka gainean, udal liburutegia 2003ra arte egon zen eta bi zerbitzuen artean elkarlana izaten zen, liburuak edo Liburu Eguna zela eta.

## Ikasturte berria

Familia eta lana bateragarria egiteko kontziliaziorako eskaintza eginen du garagarriaren akaberan ludotekak. Garilean eta agorriean Aisialdi aisialdi eskaintza etorriko da. Hori izanen dira Garbitokian dagoen Ludotekak hartuko dituen azken jarduerak. Ludotekak egoitza berrian hasiko du kurtso berria. Ollok jakinarazi duenez, "lekualdaketa irailean egingo da, lokal berrian ludoteka zerbitzua lastailean hasteko".

Ludotekak ikasturte honetan 105 bazkide ditu. Pandemia arretetik baino zerbait gutxiago bada ere, haur erabiltzaileen kopuruak gora egin zuen ikasturte honen hasieran eta negu hasieratik handitzen joan da. Egoitza berriak gazte txokoa eta musika eskola ondoan dituzte, matrikulazio igoera izan daitekeela aurreikus daiteke. Lokalaren edukierak aginduko du izen emateko zenbatekoa izanen den. Familiendako saioetan heldu batek eta haurrak egon behar dute, horregatik, dohainik dira. 4 urtetik 12 urte bitarteko haurrek ikasturteko bost euro ordaindu behar dituzte.

Orain arteko ludotekaren erabilerari dagokionez, alkateak jakinarazi duenez, "oraindik ez da zehaztu erabilerak bat, baina dagoeneko hainbat aukera daude mahai gainean".

Ekainaren 18an 12:30ean

## EKITALDI NAGUSIA

lortiko zabalgunean

---

Ondoren

### BAZKARIA

Burunda pilotalekuan  
(Txartelak ohiko lekuetan)

**KAMISETAK**  
salgai daude maiatzaren 20 arte  
ikastolara deituz 948 562 951,  
edota idatziz,  
ikastola@inigoaritzza.eus

*Gu gara iturri zaharreko ur berria, denok gara Ikastola*



Haur eskoletako ratioak jaitxi eta soldatak igotzeko manifestazioa Iruñean. @EKINKLIK

## Haur eskolez hitz egiteko lehen hitzordua jarrita

Asteazkenean, 16:00etan, Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioaren egoitzan

ARBIZU / LAKUNTZA / ALTSASU

Nafarroa 0-3 plataformak deitutako grebak dozena bat egun egin ditu gaur. Herrialdeko 60 bat haur eskolek bat egin dute lanuztearekin, tartean Arbizuko Kattuka eta Altsasuko Txirinbulo. Iruñean deitutako manifestazioa "uste baino jende gehiago" joan zelako pozik zeuden grebalaria larunbatean. Gainera, joan den astean jasotako 30.000 sinadurak astelehenean Hezkuntza Departamentuan aurkeztu zituzten. Sinatzaileek Nafarroako Gobernuari haur eskolen inguruko politika aldatzeko eskatu zioten, eta foru gobernua haur eskolekin egiten duen politika "kaka" dela salatuz.

Ez dira plataformak deitutako mobilizazio bakarrak izan. Grebalariek haien egoeraren berri ematen zuten eskuorriak banatu zituzten asteazkenean Altsasuko azokan. Bestalde, Iruñean kontzentrazioak egiten segitzen dute: astelehenean Hezkuntza Departamentuaren aurrean eta ostegunetan, Nafarroako Parlamentuan bilkura dagoela baliatuta, egoitzaren parean 08:30ean, 11:00etan eta 16:00etan.

### Mahaia

Plataformako kideak partaide diren eta konpromisoak bete daitezkeen helburu eta egutegi jakinak dituen mahai teknikoak eratu arte grebari eusteko asmoa dute grebalariek. Mahai horretan Hezkuntza eta Lurralde Kohesio Departamentuak eta Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioa

(NUKF) egonen dira. Heldu den asteazkenean 18:00etarako jarri dute bilera federazioaren egoitzan. Plataforma bertan parte hartzerako gonbidatuta dago. Atzo Nafarroako Parlamentuaren parean egindako bilkurretan plataformako kideek exijitu zuten mahai horretan "beti partaide aktiboak izatea". Aldi berean, zehaztu zuten mahai horretan ratioen jaitziera eta soldata-igoera "hasteko" eta "premiatz" landu behar direla.

### Babesa

Grebalariek azaldu dutenez, Arbizu eta Altsasuko haur eskolek erabiltzaileek ere grebarekin bat egin dute. Kattukan, gainera, gurasoek talde bat osatu dute "0-3 zikloko hezitzaileei gure babesa emateko asmoz". Haien iritziz, "hezitzaileek familien eta gizartearen babesa behar eta merezi dute". Eta egoera bideratzeko "gutxieneko batzuk oinarriztat hartuta negoziatzen hasi beharko" liratekeela uste dute. Taldekideek adierazi dutenez, "premiatzkoa iruditzen zaigu Nafarroan guraso sarea osatzea, bakoitzak bere kabuz ekintzak egin beharrean denek bat egin ahal izateko, kolektibo bat bezala". Hori ahalbideratzeko WhatsApp taldea osatu dute eta han "haur eskola bakoitzeko ordezkari gisa guraso bat edo bi egon daitezkeen, edo gehiago nahi izanez gero. Modu honetan suertatzen diren ideiak eta iniziatibak bateratu ditzakegu eta indar gehiago egin". Gurasoak bat egitara gonbidatu dituzte.

# Ibarreko zazpi proiekturi Cedernaren bulkada

Sei proiektu udalek edo kontzejuek sustatutakoak dira, bestea enpresa batek. Zazpi egitasmoak aurrera egiteko 853.028,48 euro beharko dira. Cederna Garalurrek zazpi sustatzaileei 331.652,21 euroko diru laguntza eman die

SAKANA

Cederna-Garalurrek 2014-2020 landa-garapenerako programaren bosgarren deialdira aurkeztutako 62 proiektuetatik 35i 1.404.358,34 euroko dirulaguntza ematea onartu zuen. Proiektu horien artean Sakanako zazpi (%20) daude, 331.652,21 euro (%23,61) jasoko dituztenak. Garalurren dirulaguntza hori Nafarroako Gobernuaren eta Europako Batasunaren LGENF funtsen baterako finantziatzea da, Nafarroako Landa Garapenerako 2014-2020 Programako 19.2 neurriaren bidez.

### Lakuntza

Herriko liburutegia udaletzeko beheko solairutik ganboikora igotzeko ideia aspalditik du Lakuntzako Udalak. Baina dirulaguntzarik gabe lekualdaketa ezin finantzatu ibili da. Azkenean, Garalurren 50.000 euroko bulkada jaso du ganboikoan erabilera anitzeko gelak dituen liburutegia egiteko. Finantziatzea osatzeko udala epaitza saltzear dela jakinarazi digu Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza alkateak.

### Dorrao

Meistruban etxeko beheko solairuan gizarte zentroa egiteko Dorraoko Kontzejuek 113.060,8 euroko inbertsioa egin nahi du eta horretan Garalurren 50.000 euroko dirulaguntza izanen du. Gainera, etxearen oinezko pasabidearen pasa izaera mantenduz, kristalez itxi eta gizarte zentroari lotu nahi dio. Espazio horrek herrian hainbat gauza antolatu eta egiteko aukera emanen lukeela esan du Idoia Resano Igoa kontzeju buruak. Bestalde, Meistruben etxearen lehen solairuan bi etxebizitza eta bigarrenean bat egin nahi dituzte gainera. "Arkitektoa proiektua bukatzen ari da, eraikinak zaharberritzeko eta alokatzera bideratzeko laguntza deialdira aurkezteko".



Bakaikuko denda berria izanen dena itxura hartzen ari da. ARTXIBOA

## LIBURUTEGIA, DENDA, ESTALPEA, ERABILERA ANITZEKO GELAK, ZATIKATZE GELA ETA JATETXEA LAGUNDUTA

### Arbizu

Arbizuarrek plazan zein estalpe nahi zuten herri galdeketa bidez erabaki zuten eta udala hura eraikitzeko lanak eman nahi izan zituen baina ez zen eskaintzarik aurkeztu. Lanak eman ahal izateko zer egin aztertzen ari da Arbizuko Udala. Bitartean Garalurrek 50.000 euroko laguntza eman diola 148.443,76 euroko inbertsioari aurre egiteko.

### Etxarri Aranatz

Sakana hiltegiaren zatikatze gela egin ondoren hura janzteko Garalurren 50.000 euroko dirulaguntza jaso du Etxarri Aranatzko Udalak. Guztira 74.511,57 euro bideratuko ditu udalak azpiegitura hori hornitu eta udazkene-rako erabilgarri egiteko. Zatikatzeko gela kudeatuko duen kooperatiba eratzeko pausoak ematen ari dira gaur egun Sakanako

Garapen Agentzia, hiltegi kooperatiba eta Belardi, Sakanako ekizleek elkarrekin.

### Bakaiku

Herria dendarik gabe dago. Udalak eta bakaikuarrek ikusi zuten gabezia handia izanen zela hura herriarendako eta denda berri bat zabaltzeko lanean hasi ziren. Ondorioz, Bakaikuko Udalak Garalurren 50.000 euroko dirulaguntza jaso du denda egokitzeko. Lan horiek dagoeneko hasiak dira. Bestalde, bakaikuarrak denda kudeatzeko modua aztertzen ari dira.

### Urdiain

Hainbat jarduera egiteko aukera emanen duen erabilera anitzeko areto bat egiteko 50.000 euroko dirulaguntza jaso du Urdiaingo Udalak. Azpiegitura hori egiteko udalak 233.357,49 euro inbertsioa egitea aurreikusitako du.

### Ziordia

Laguntzak jaso dituzten artean enpresa den bakarra Ziordiakoa da eta taberna jatetxea zabaldu nahi du herrian. Garalurren 31.652,21 euroko dirulaguntza jasoko du.

# Kultur gunean eta kiroldegian inbertsioak

Altsasuko Udalak bere jabetzakoak diren bi eraikin horietan energia kontsumoa murrizteko lanak egin nahi ditu eta, horretarako, dirulaguntzak eskatu ditu. Bestalde, argiteria publikoko bonbillak LED argiengatik ordezkatzeko ari dira

## ALTSASU

Iortia kultur gunean eta Zelandi kirol gunean energia kontsumoa murrizteko hainbat lan egin nahi ditu Altsasuko Udalak. Horretarako, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak onetsitako titulartasun publikoko eraikinak birgaitzeko dirulaguntzen deialdira lanen proiektuak aurkeztu ditu. Deialdi hori Europako Next Generation berreskuratzeko funtsak finantzatu du. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, Iortia kultur gunean honako lanak egitea aurreikusitako udalak: eraikinaren inguratzaile termikoa (fatxada, estalkia eta kanpoko arotzeria) birgaitzea eraikinaren energia galerak murrizteko, kultur gunearen instalazio termikoa berritzea eta gas galdararen ordezkari geotermia jartzea eta, azkenik, autokontsumorako panel fotovoltaikoak jartzea. "Lanek 1.571.870,81 euroko aurrekontua dute eta dirulaguntza 1.223.364,3 eurokoa izan daiteke. Dirulaguntza onartuz gero, lanak, gehienez, 2024ko irailaren 30erako bukatuta egon beharko dute", argitu du alkateak.

Aipatutako dirulaguntzen deialdiaren beste lerro baten bidez Altsasuko Udalak eskaera egin du Zelandi kiroldegian ere era-



Langilea argiteria publikoa berritzen, zeuden farolak berriengatik aldatzen.

berritze lanak egiteko. Izan ere, "Zelandiko frontoiko eta kiroldegiko estalkiak isolatu gabe" daudela jakinarazi du Ollok. Horregatik, Zelandiko kirol gunean hiru lan aurreikusitako udalak. Alde batetik, aipatutako bi eraikinaren klimatizazio egokia lortzeko inguratzailea, fatxadako estalkiak eta beirateak birgaitzea. Bestetik, aerotermia sistemarako panel fotovoltaikoak jarri nahi dira estalkian. Eta, oro har, autokontsumo elektrikorako ere izanen direnak. Eta, azkenik, eraginkortasun handi-

ko berreskuratzaileak jarri nahi dira.

Bestalde, Altsasuko Udalaren energia kontsumoa murriztu eta, horren bidez, fakturak txikitu eta klima aldaketaren kontra egiteko CO<sub>2</sub> isuriak murrizteko asmoa du. Bide horretan neurrietako bat da argiteria publikoa berritzea eta dauden bonbillak kendu eta LED argiak jarri. Lan horien bigarren faseari asteartean ekin zion kontratua hartu duen aldi aterako enpresen elkarteak. Gartzia Ximenez eta Zelai kaleetakoak aldatzen hasi dira.



Zelandiko igerilekuan igeri egiten. ARTXIBOA

## Gasa eta igerileku estalia

Zelandi kiroldegiko igerileku estalia, jacuzzi, turkiar bainua eta sauna garilean eta agorrilean itxita egonen dira. Gimnasioa, ordea, irekita egonen da. Orain arte ohikoa zen urtero kiroldegia agorrilean aste batzuz itxita egotea mantentze lanak egiteko. Baina Altsasuko Udalak apirilaren 29an hartutako erabakiak horrekin beharrezko gasaren prezioarekin zerkusua du. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, "Atabo Altsasu enpresa publikoak oraindik ez du berreskuratu pandemia aurreko pertsona abonatuaren kopurua. Osasun agintariak COVID-19aren hedapena prebenitzeko ezarritako neurrien ondorioz, abonatuaren kopurua nabarmen jaitsi zen, 1.800dik 1.400era. Une honetan 1.500 pertsona inguru daude abonatuta, eta, beraz, pertsona abonatuaren diru sarrerak pandemia aurretik baino askoz ere txikiagoak dira". Abonatuakoen kopurua txikitzearen ondorioz, udalak diru ekarpenak egin dizkio kirol azpiegiturak kudeatzen dituen enpresa publikoari. Beti ere, "ekonomia oreka lortzeko". 2020an kirol instalazioen kudeaketa enkargatzeagatik dagozkion 166.137,09 euroez aparte beste 36.888,22 eman zizkion. 2021ean aparteko ekarpen hori 180.000,00 eurokoa izan zen. 2016 eta 2019 artean Atabo Altsasuk irabaziak izan zituen eta hura pilotutako zorra ordaintzera bidaratu zen.

Alkateak argitu duenez, "aurten kontsumo gastuak neurritzeko kanpo handitu dira, bereziki, igerileku klimatizatuaren instalazioaren gas kontsumoa". Ollok azaldu duenez, gasagatik ordaindu dutena %456ko igoera izan du, 2021. urtean 66.140,60 euro ordaintzetik aurten 301.601,14 eurora pasatuz. Horregatik, udalak bi erabaki hartu zituen. Batetik, Atabo Altsasuri 120.000 euroko aparteko ekarpena egin eta, bestetik, gas kontsumoaren faktura murrizteko, igerileku estaliak garilean eta agorrilean itxtea. Bi hilabete horietan igerian aritu nahi dutenek Dantzalekuko igerilekuetara jo beharko dute; garagarriaren 21etik eta agorrilaren 31era daude zabalik.

# BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan  
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.  
**Salbuespenik gabe.**



bertako  
igogailuak | ascensores  
[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus)



ZURRA JAUSITAKO  
OBJEKTUAK  
BERRESKURATzea



HARRIATZE  
EGORRAK



IGOGAILUAK  
ZARATAK



365/36/7

ARABA  
945 712 822  
GIPUZKOA  
943 903 450

BIZKAIA  
946 523 935  
NAFARROA  
848 870 917

# Sunsundeguirekiko LABen kezka Parlamentuan

Parlamentariei enpresaren berri ematen dien idatzia Nafarroako Parlamentuan erregistratu zuten Sunsundeguiko LABeko ordezkariak. Langile guztien "egoera larria" salatu dute, baita "enpresak dituen erronkei aurre egiteko planik ez dagoela"

ALTSASU

Sunsundeguiko enpresa batzordean gehiengoa duten LAB, ELA eta CCOO sindikatuen agerraldia atzera bota zuten UPNk eta PSNk, antza, UGTk hala eskatuta. Horren aurrean LABeko delegatuek Nafarroako Parlamentuan Sunsundeguiaren etorkizunarekin duten kezka azaltzen duen idatzia erregistratu zuten atzo. LABeko kideek diotenez, "lantegiaren etorkizunarekin kezkatuta gaude, enpresan inork ez daki zein diren enpresaren etorkizuneko planak, lan karga faltagatik enplegu erregulazioko espedienteetan gaude, eta ez dakigu etorkizunak zer ekarriko duen, badakigu kaleratzeak egon daitezkeela egoera ez bada aldatzen. Hori ikusita, argi dago norbait gezurretan ari dela eta ez dagoela gardentasunik, plantillan eta eskualdean kezka dago lanpostuen etorkizunaren inguruan". Prentsaren bidez 2022-2027 Bideragarritasun Planaren berri izan dute, baina enpresa batzordeak dokumentu hori ez duela, eta beraz, hura osatzen duten sindikatuek (aipatutakoak eta UGT) ez dakitela ezer zehaztu dute.

LABeko kideek gogorarazi dutenez, "Sodena enpresa publikoak bitan erreskatatu du zuzendaritza eta berriki Cofides funtsaren



Sunsundeguiko LABeko delegatuak Nafarroako Parlamentuaren atean. UTZITAKOA

8,9 milioi euroko finantzaketa jaso du". Sindikatu abertzaletik nabarmendu dutenez, "Sodenaren finantzazioa plantillaren etengabeko ahaleginen, soldata jaitzieren, soldata izoztearen eta lan baldintzak kaskartzearen mende egon da, baina inoiz ez dio jarraipenik egin zuzendaritzaren kudeaketari". Pasatako zenbait gertakari gogorarazi ditu: "Sodenak Sunsundegui euro baten truke saldu zion gaur egungo zuzendaritzari 2013an, eta zor zituen 30 milioi euro baino gehiago barkatu; bere erabakien pisua,

berriz, langileok pairatu dugu. 2013tik ez da ekitaldi bakar bat ere itxi irabaziekin, eta salmenten eta fakturazioaren errekorra izan zen urtean, emaitza 4,5 milioi euro negatibokoa izan zen". Horregatik, LABek Cofidesen finantzaketarekin historia berriro errepikatuko den kezka azaldu du, "Sunsundegui diru publikoarendako hondorik gabeko zuloa izatea ez dugu nahi". Hori dela eta, LABek Nafarroako Gobernuari "arazoak konpontzeko garaia" heldu dela adierazi dio. Horregatik, langileen

eskubideak errespetatuko dituen "eraldaketa bat behar dugu, enpresa errentagarri bilakatu behar da aurrean ditugun erronkei aurre egiteko".

Langileez

Sindikatu abertzaleko kideek jakinarazi dutenez, Sunsundeguiko langileek 2020ko irailetik gaur egunera arte Aldi Baterako Enplegu Espedientea (ABEE) "jasa dugu inongo diru konpentsaziorik gabe, behin eta berriz kaleratzeak jasoko dituen ABEE bat aplikatzearekin mehatxatu gaituzte, ABEE hori ez gauzatze-ko arrazoi bakarra kalte ordainak egiteko likidez falta dela azpimarratzen dute". Ziurtatu dutenez, "Egungo egoera lan prekarietatea da, soldata izoztuta eta soldata eskala bikoitzarekin enpresan izandako murrizketen ondorioz".

Azaldu dutenez, "Sodenak 2017an lantokia hobetzeko inbertsioak egin arren, enpresaren bideragarritasuna arriskuan jar dezaketen antolaketa arazoek hor jarraitzen dute". Lan osasunari dagokionez, "duela gutxi prentsan esan digute Sunsundegui eredu dela, egitak oso urrun. Istripuak etengabe daude, hilabete batean 75 izan ziren. Norbera Babesteko Ekipamendurik eza, prestakuntza espezializaturik eza, babesik gabeko makineria, suteen aurkako sistemarik eza eta ebakuazio plan falta, langileak kaleratzeko mehatxu etengabeak. Berdintasun plana falta da... Larriena gaur egun produkzioaren antolaketan erabateko kontrolik eza dagoela, eta gorabehera larriak ematen ari direla". Horregatik, LABek erantzukizunak eta konponbideak eskatu ditu. Egoera bideratzen laguntzeko prest daude.

## Sakanan erosketak egiteak denondako saria du

Astelehenetik hilaren 28ra Udaberriko Tonbola. 10 euro baino gehiagoko erosketatik txartela jasoko da

SAKANA

Udaberriko Tonbolarekin Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteak (SDOZE) denboraldiko salmentak sustatu eta hurbileko merkataritzari bulkada eman nahi dio. Astelehenetik

aurrera martxan jarriko da. SDOZEko kide den establezimenduren batean 10 euro baino gehiagoko erosketak egiten dituzten pertsonen tonbolako boleto bat jasoko dute. Elkartetik jakinarazi dutenez, "sari zuzenetan

3.000 euro baino gehiago daude". Besteak beste honako sariak eskuratu daitezke tonbolaren bidez: 5 eta 15 euroko txartelak SDOZEren establezimenduetan gatzatzeko, 200 ardo botiletako bat, piper poteak, goxokiak, txokolatea eta beste. Gainera, pantin elektriko baten zozketa ere egingen du SDOZE. Elkarteak 53 bazkide ditu eta bere buru berria Naiara Orzako Irurtia da. Altsasuko Dendari Elkarteak 41 bazkide ditu eta presidentea Arantxa Igual Bengoetxea da.



Tonbolaren kartela.

## FESTAK

ARAKIL

SAN ISIDRO

MAIATZAK 15 Igandea

12:00 Ibarreko hildakoen aldeko meza. Ondoren, arakildarrak elkarrekin hitz egiten geldituko dira ermita inguruan eta udalak otamena eskainiko du.

ARBIZU

SAN ISIDRO

MAIATZAK 15 Igandea

20:00 Aatea, plazan.

LIZARRAGABENGOA

SAN ISIDRO

MAIATZAK 15 Igandea

20:00 Auzatea, Bordatxo elkartearen ondoan.

OLATZAGUTIA

MAISUENEA GAZTETXEAREN 27. URTEURRENA

MAIATZAK 14 Larunbata

12:00 Txupinazoa eta triki poteoa. 14:30 Bazkaria.

Menua: Babarrunak, mamia, kafea eta kopa. 10 euro.

18:00 Mozkor Olinpiadak eta poteo latza.

19:00-21:00 Elektropilaka eta Elektrotzaranga.

21:30 Bokata.

22:30 Kontzertuak: Stepi Selekta, Streetwise, Stupenda Jones (kontzertu bakarra) eta Ahuntza.

ETXARRI ARANATZ

Kinto ospakizunen lehen txanda

Ettxarri Aranatzaren kintada guztiak ez dira egun berean ospatzen. Urtean barna lauzpabost egun izaten dira adin tarte bateko kintoak elkartzeko. Aurrenekoa ilbeltzaren azken larunbatean izaten da, baina aurrean pandemiaren kontrako neurriak indarrean zeudenez, ospakizunak atzeratu eta maiatzean ospatzea erabaki zuten, larunbatean. Herriko hemeretzki kintadek beraien eguna ospatuko dute. Guztiek bazkaria izanen dute eta Txuma DJ kontratuta dute: 20:00etatik 22:30era eta 00:00etatik 03:00etara egonen da plazan.



Altsasu, entrenatzen. ALTSASU K.E.

## Altsasuk irabazten badu, Preferentera igoko da

**FUTBOLA** Beti Onak taldearen kontrako partida larunbatean jokatuko da, 18:00etan, Dantzalekun

Altsasu Kirol Elkartearen pozik, urduri eta ilusionatuta daude. Guztia batera. Izan ere, Altsasu taldea Erregional mailako bigarren kanporaketa jokatzen ari da Beti Onak taldearen kontra, eta larunbatean, Atarrabian bi taldeek bana berdindu eta gero, larunbateko itzulerako partidaren erabakiko da guztia. Altsasuk irabaziz gero, talde gorritxoaren mailara igoko litzaiteke, 30 urte Erregional mailan egon eta gero. Hortaz, partidak ikusmin handia piztu du Altsasun.

Larunbatean, 18:00etan, jokatuko da partida erabakigarria, eta Altsasu Kirol Elkarteak Altsasu animatzera Dantzalekura joateko eskaera egin die futbolzaleei, animo guztiak beharrezkoak izango baitira.

### Lagun Artea eta Etxarri

Lagun Arteak Lehen Maila Autonomikoari eusteko borrokan jarraitzen du. 10. postuan dago, jaitsiera postuetan (40 puntu) eta bi puntura du salbazioa, baina asteburuan atsedean jardunaldia dagokio eta horrek bere kontra jo dezake. Etxarri Aranatz taldea, aldiz, sailkapenean 13. da (36 puntu), mailari eusteko postuetan, eta larunbatean, 17:30ean, Lezkairu arerio zuzena hartuko du San Donato zelaian.

# Nafarroa Arenara heltzeko, Katedrala konkistatu behar

**PILOTA** Buruz Buruko finalerdia jokatuko du Ezkurdiak Jakaren kontra igandean Astelenan. Ezkurdiak aitortu du "kezka" duela txapelketa jokatzeak dakarren tentsioa ez duelako bizi izan. Jakak uste du jokatuko ez izanagatik Ezkurdiak ez duela abantailarik

### Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Buruz Buruko Txapelketa finalerdien zurrunbiloan murgildu da. Larunbatean Bizkaia pilotalekuak Unai Lasoren eta Jokin Altunaren finalerdia hartuko du, ikusmin handia piztu duena. Laso bizepseko lesioaz behar bezala osatu ote den, atsedean gehiago hartu izanak mesede egingo ote dion, Altuna nekatuago egongo ote den... denetarikoa esamesak dabilta borborka.

Joseba Ezkurdi final laurdenetako ligaxkan partida bakarria jokatuta, Zabaletaren kontrako, iritsi da finalerdietara, Altuna eta Dario bere kontra baja izan baitziren. Igandean, Eibarko



Ezkurdiak errespetu handia dio Jakari.

Astelenan, Erik Jaka izango du arerio. Nolabaiteko "kezka" du arbizuarrak, azken bi asteetan "txapelketaren tentsioa" ez baitu bizi izan. Baina entrenamenduetan buru-belarri aritu da, eta tentsazio onekin iritsi da finalerdietara. Badaki Jaka arerio "oso arriskutsua" dela, eta argi du: "frontisetik urrun eduki beharko dut".

Erik Jakak finalerdierako "oso gogotsu" dagoela adierazi du. "Zaila izango da, baina galtzeko gutxi dut, eta ilusio handia" aitortu du. Josebak atsedean handiago izan duela galdeginda, Lizartzakoarendako "horrek ez du zertan abantaila izan".

## Asteburu pilotazalea



Takoak jartzen. EMAKUME M. CUP

**Emakumeak Arbizon** Nafarroako Pilota Torneoako Master Cup Txapelketako partidak ederrak izan ziren.



Jaialdiko pilotariak.

**Oinatzi agurra Altsasun** Bengoetxea-Alustiza, Senar-Gofiñ eta kadeteak bikain aritu ziren.

# Zerotik hamarrera, berrehun

**MENDIA** Urbasa, Altzania eta Aralar biltzen dituen Hiru Mendi Zerrak martxa 392 mendizalek osatu zuten eta mendizaleen aldetik eskerrik beroenak jaso zituztela nabarmendu dute Altsasuko Mendigoizaleak taldeko antolatzaileek

### Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak apirilaren 2rako antolatu zuen Hiru Mendi Zerrak mendi martxa, baila elurrarengatik maiztaren 7ra atzeratu zuen. Eta eskerrak, larunbata fresko esnatu arren, eguzkitsua eta ederra bilakatu baitzen. Azkenean 392 mendizale izan ziren Urbasa, Altzania eta Aralar mendizerrak lotzen dituen martxan parte hartu zutenak. Bi aukera zituzten: ibilbide uzea (47 km) edo laburra (26 km). Bi ibilbideen lehen zatia berdina zen: Altsasutik Urdiainera joan eta gero, Portuazpi igo eta Bargagain, Urbasa, eta Gainsol zeharkatu zituzten mendiza-



Ziordian haragi gisatua dastatu zuten mendizaleek, harrera bikaina izan zuena.

leek, Ziordira jaisteko. Han banatzen zen ibilbidea. Luzean jarraitu zutenek Kipular, Sorzarreta, Atabo, Balankaleku, Intxusburu, San Pedro eta Dantzalekutik jarraitu zuten, Altsasura heltzeko, eta laburrekoek Olaztiko partzelarietan aurrera egin zuten, Cementosen atzetik, Altsasura Ameztiatik heltzeko. Egon zen tarteko ibilbide bat ere, Sorzarretatik Altsasura egiten zuena, Dorretxikitik.

Ziordiko hornidura gunean haragi gisatua jatea tradizioa da. Milagros Jimenez, Patxi Beramendi, Juanito Urrea eta Carmelo Navarrete arduratu ziren prestatzeaz, eta bikaina zegoen. Hala zioten mendizaleek. "Jendea mendian ibiltzeko gogoz dago, eta asko aurreko astean Sakana-ko Ibilaldian parte hartzetik zetozen. Oso pozik zeuden, antolakuntzarekin zeharo eskertuta. Zerotik hamarrera, berrehuneko puntuazioa eman ziguten askok" aipatu du, irribarrez, Jesus Guineak, Altsasuko Mendigoizaleak taldearen izenean. "Gu ere oso eskertuta gaude, bai mendizaleekin eta baita babesleekin ere" nabarmendu du.

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU

Sakanako Mankomunitateak Sakana Eskualde Aktiboa Zerbitzua martxan du, helburu batekin: sakandarren artean ariketa fisikoa egitearen beharra sustatzeko, sakandarrak aktibo izan daitezen eta bizi kalitate ona izan dezaten. Dani Echávarri Manjón da orientatzailea, eta zerbitzua Etxarri Aranazko eta Irurtzongo Osasun Eskualdeetako herrietan martxan jarri ondoren, zerbitzua Altsasuko Osasun Eskualdera iritsi da.

**Gidatzen duzun zerbitzua anitza da: Ttipi-Ttapa paseo osasuntsuetatik hasi, jarduera fisikoko saioekin jarraitu, partikularrekin egindako kontsultak...**

Ariketa fisikoa egiteko interesa duen eta aholkularitza behar duen guztiak nigana jo dezake eta kontsulta hartu, Mank-en kontaktua eskatuta, bere beharretara egokitutako ariketa fisikoa elkarrekin zehazteko, baina egokiagoa da medikuak edo erizainak gomendatuta gurekin harremanetan jartzea. Izan ere, zerbitzu hau era egokian eskaintzeko Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Osasun Etxeek eta Gizarte Zerbitzuek elkarlanean lan egiten dugu. Doako zerbitzua da.

**Kontsultez aparte, Ttipi-Ttapa paseo osasuntsuak, jarduera fisiko gidatuak eta hausturak ekiditeko ikastaroak gidatzen dituzu eta Etxean Bizi programari esker etxetik atera ezin dutenei ariketa fisikoak egiten dizkiozu.**

Bai. Arakil eta Aranatz aldean zerbitzua egonkortzen ari da. Talde guztiak martxan daude eta feedbacka nahiko positiboa izan da. Orokorrean taldeak nahiko ongi doaz, jendea oso kontentua dago eta baita ni ere.

**Zer moduz Ttipi-Ttapa paseo osasuntsuetan?**

Oso gustura. Orain, eguraldi onarekin, gozamina da. Ttipi-Ttapa paseo taldeak Urdiainen, Baikaun, Etxarri Aranatz, Lakuntzan, Arruazun, Uhart Arakilen eta Irurtzunen daude. Horretaz gain, jarduera fisikoa lantzeko taldeak Etxarri Aranatz, Arbizun, Lakuntzan, Arruazun eta Irurtzunen daude. Pozik nago, osasun etxeetan gehiago inplikatzeko ari direlako eta gure saioetara geroz eta jende gehiago bideratzen ari direlako. Gehienbat hirugarren adineko pertsonen eta gaixo kronikoekin lan egiten dugu, eta pandemiako

# "Altsasun ariketa fisikoa sustatzeko prest gaudete"

**DANI ECHÁVARRI MANJÓN** SAKANA ESKUALDE AKTIBOA ZERBITZUKO ORIENTATZAILEA Etxarri Aranazko eta Irurtzongo Osasun Eskualdeetan martxan diren ariketa fisikoa sustatzeko kontsultak eta Ttipi-Ttapa paseoak Altsasuko eskualdera heldu dira



Echávarrik zerbitzuko kontsulta astelehenetan du zabalik Altsasun, Ziordian eta Olaztin.

azken bi urteak oso gogorrak izan dira eurendako. Baina orain udaberriarekin badirudi jendea animatzen ari dela.

**Zerbitzua Altsasuko Osasun Zonaldera iritsi berri da. Zein jarduera eskaintzen dituzue?**

Altsasun, Olaztin eta Ziordian, momentuz, kontsulta zerbitzua dugu zabalik, astelehenetan. Altsasuko kontsulta 9:00etatik 11:00etara dago zabalik, osasun etxeko erabilera anitzeko gelan. Ziordiko udaletxean, kontsultan 12:30etik 13:15era egoten naiz, eta Olaztin 13:15etik 14:00etara. Beraz, jendea animatu dadila ariketa fisikoaren inguruko edozein kezka edo eskaera egitera. Zerrenda bat osatzen ari naiz interesatuta dauden pertsonen, eta jendea nigana heldu eta guztia aztertu eta antolatu bezain pronto, ordutegia itxi eta Ttipi-Ttapa paseo osasuntsuekin eta bestelako ariketa saioekin hasteko moduan egongo gara. Guztia lotzea ez da erraza izaten, baina denon inplikazioarekin lortuko dugu. Altsasuarrek, ziordiarrek eta olaztiarrek jakin dezatela zerbitzua martxan dagoela eta aurki hasiko gara.

**"JENDEA ANIMATU DADILA, ETA HORREN ARABERA ANTOLATUKO DITUGU TALDEAK"**

**Hausturak ekiditeko tailerra eskaintzen duzu Etxarri Aranatz. Haustura bat nola ekidin daiteke?**

Ikastaroan denetatik lantzen dugu: mugikortasuna, oreka... baina bereziki indarra da landu beharrekoa. Askotan pertsonak erortzen dira ez oreka faltagatik, indar faltarengatik baizik. Bereziki hanketan indar falta dutelako. Ikastarora jende dezente etortzen da eta pozik daude, esaten dute hobera egiten ari direla. Batzuek aulkitik altxa ere ezin zuten, eta orain sentadillak egiten dituzte aulkian. Euren egoera fisikoa hobetzeaz gain, bere osasun mentalak eta animoak ere hobera egiten du, euren bizi kalitateak bereziki. Zeharka, euren zaintzaileei ere lana errazten zaie.

**Paseoetan eta jardueretan parte hartzen dutenek hobekuntza nabaritzen al dute?**

Bai. Normalean pertsona sedentarioak dira, asko etxetik atera ere egiten ez zirenak, eta astean behin edo bitan zerbait mugitzea, eta horri beraien kabuz egiten hasi diren ariketa gehituta, nabaritzen da. Oso kontentua daude. Gurea ez da jarduera fisiko bat bakarrik, jarduera soziala ere bada. Jendearekin elkartzen dira, gero kafea hartzen dute, nirekin hitz egiten dute...

**Etxean Bizi programarekin etxetik mugitu ezin diren pertsonen lan egiten duzu.**

Bai, mugikortasunagatik etxetik atera ezin direnekin lan egiten dut. Lehenik eta behin, pertsona bakoitzaren testuingurua ezaugu behar da, eta horren arabera ariketa fisikoa egiteko planifikazioa egiten dugu. Beraiekin ariketa fisiko hauek egiteaz gain, bere zaintzaileei ere erakusten dizkiet, ondoren zaintzailearekin egunero ariketa horiek landu dituzten. Euren onerako oso komenigarria da, eta kasu egiten didate, bueltatzen naizenean hobetu dutela konturatzen naitelako. Helburua pertsona hauek autonomo izatea da. Asteartetan bi saio ditugu Etxean Bizi programara bideratuta, eskasegi agian, baina moldatu behar.

**Altsasuko osasun eskualdean zein talde sortzea nahiko zenuke?**

Ttipi-Ttapa paseo talde bana Altsasun, Ziordian eta Olaztin, eta hausturak ekiditeko tailerra Altsasun, jarduera fisiko gidatua ikastaroarekin batera, Etxean Bizi programa ahaztu gabe. Ea aurki hasteko gai garen.



# Bizi Festan parte hartzera deitu dute, Ziordian

**TXIRRINDULARITZA** Maiatzaren 29an Ziordiko txipudi parkeak Mank-ek bizikletaren inguruan prestatutako festa hartuko du. Bizikleta paseoa, jokoak, ipuinak, auzatea... denetarik izango da eta lehenbailehen izena ematera animatu dute

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA Sakanako Mankomunitateko Kirol, Euskara, Berdintasun eta Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuek Bizi Festa prestatu dute elkarlanean. Aurten zazpi-garren edizioa izango da eta Ziordiko txipudiko parke ederrean gauzatu da. "Egun honi Bizikleta Ibilaldi Berezia izena jarri genion hasieran, Sakanako Bizikleta Egunitik nolabait bereizteko, baina nahasmena sortzen zen eta Bizi Festa izena hartuko du hemendik aurrera. Festa egun ederra izatea espero dugu eta sakandar guztiak gonbidatzen ditugu bertara" azaldu zuen asteartean egindako aurkezpenean



Gerrikagoitiak, Errazkinek eta Zestauk asteartean aurkeztu zuten eguna.

Amaia Gerrikagoitia Uriarte kirol teknikariak.

Bizi Festa Ziordia eta Olazti artean egingo den bi orduko 7 km inguruko bizikleta ibilbide errazarekin hasiko da. "Familia eta lagun giroan modu lasaian ariketa fisikoa egitea sustatu nahi dugu. Lasaitasun horrek partaideen artean harremanetarako bidea ematen du, euskaratik" gaineratu zuen Izaskun Errazkin Beltza euskara teknikariak. Bizikleta ibilbiderako kaskoa eramatea derrigorrezkoa da, eta bizikleta doitzea. Ondoren, Ziordiko txipudiko parkean jarraituko dute ekitaldiek. Partaideen artean txirrindularitza materiala zozketatuko da eta auzatea izango da, baina ez ohikoa. "Jatorri anitza duten sakan-darrak hurbilduko dira eta jatorri anitzeko jakiez gozatzeko aukera izango dugu" aipatu zuen Bego Zestau Baraibar Anitzartean kulturartekotasun teknikariak.

Izaskun Mugika ipuin kontalariaren txanda izango da ondoren. "Joan zen urtean Itxasperrin antolatua genuen Bizi Festan aritu zen, eta aurten ere zabaldu nahi ditugun baloreak landuko

ditu bere ipuinetan: berdintasuna, kulturartekotasuna, bertako hizkuntzak... ederra izango da" gaineratu zuen Errazkinek. Bitartean, familiei aisialdian euskarara lantzeko dauden gune proposen berri emango zaie.

## Bigarren eskuko materiala jaso

Jolas herrikoien eta bizikleta konpontzeko tailerraren txanda helduko da segidan. Gurpil-pitzadurak nola konpondu, kateko begiak nola aldatu... denetarik ikasiko dute. Bitartean bigarren eskuko kirol materialaren bilketa egingo da. Patinak, baloiak, bizikletak, patineteak... denetarik jasoko dute, eta bildutakoa Iruñeko Apoyo Mutuo-Elkarri Laguntza elkarteari emango zaio. "Ekimen honekin elkartasuna landu nahi dugu, dagoeneko erabiltzen ez dugun kirol materiala beste norbaitek erabili dezakeelako" nabarmendu zuen Zestauk.

Bizi Festan parte hartzeko izena maiatzaren 25a baino lehen eman behar da, Sakanako ikasketxeetan edo Sakanako Mankomunitatean. 10 urtetik azpiko haurrek heldu baten ardurapean egon beharko dute.



Iker Gomez, erdian. NAFARROAKO FEDERAZIOA

## TXIRRINDULARITZA Iker Gomez hirugarren Gironako klasikoa

Asteburuan Nafarroako kadeteen mailako txirrindularitza selezioak Gironako Antonio Miguel Ramirez Oroimenezkoan parte hartu zuen. Quesos Albeniz-Burunda taldeko Iker Gomez lehen etapen hirugarren izan zen eta klasikoko sailkapen orokorrean hirugarren sailkatu zen, eta bere taldekide Ekain Imaz 25. sailkatu zen. Gomezek maiatzaren 1ean Segurako Saria irabazi zuen.

# La Pelusok zapore oso ona utzi du Irurtzunen

**TXIRRINDULARITZA** 1.389 txirrindularik osatu zuten martxa, 18 taldek hartu zuten parte erlojupekoan eta asteartean Movistarreko Sarah Gigantek irabazitako Emakumeen Nafarroako Klasikoko etapak Irurtzungo txirrindularitza egunak borobildu zituen

## Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN

Txirrindulari lotutako egunak bizi izan dituzte irurtzundarrek. Larunbatean, 1.389 txirrindularik osatu zuten Irurtzun Taldea kirol elkarteak antolatutako II. La Peluso martxa zikloturistan. Gehienek ibilbide luzea aukeratu zuten (138 km), zortzi portuz osatutako ibilbide gorabeheratsua, eta gainontzekoek ibilbide laburra (89 km).

Tropelaren artean izen ezagunak zeuden: Miguel Indurain, Carlos Hernandez, Jesus Mari Segura, eta Angel Arroyo Reynolds taldeko txirrindulari ohiak tartean. Izan ere, La Pelusok Reynolds taldeko 1981, 1982 eta



Antolakuntzan 60 pertsona aritu ziren, Santi Moreno buru zela. N.MAZKIARAN

1983 taldeko txirrindulariak omendu zituen aurten. Probaren irteerako zinta Jose Luis Lagua txirrindulari ohiak moztu zuen, "ilusio handiz". Aipatutakoez gain, Juan Jose Quintanilla, Miguel Atxa, Vicente Iza, Ricardo Zuñiga, Enrique Ajá, Julian Gorospe eta Celestino Prieto zeuden. Bestalde, joan zen urtean Kern Pharma taldean erretiroa hartu zuen Enrique Sanz eta aurten zendutako eta Pelusorekin eta Pello Alzuetarekin batera Irurtzunen txirrindularitza sustatzeko lan handia egin zuen Jose Antonio Martinez "Chapas" omendu zituzten. Halaber, Aralar Txirrindularitza Taldeari euren alde egindako diru bilketan jasotakoa eman zioten.

## Abuztuan, La Peluso BTT Xtreme

Igandean hemezortzi taldek taldekako erlojupekoan parte hartu zuten, eta asteartean, Emakumeen Nafarroako Klasikoko lehendabiziko etapa Irurtzunen jokatu zen, La Pelusoren ibilbidean. Sarah Gigante (Movistar) gailendu zen. Hurrengo hitzordua abuztuaren 27an izango da, II. La Peluso BTT Xtreme martxa.



Flores, taldekideekin. UTZITAKOA

## Izpegi irabaztetik, Nazioarteko Fito igoerara

**AUTOMOBILISMOA** Floresek Izpegi Igoera irabazi zuen Ordokirekin lehia estua izan eta gero

Larunbatean autozaleak Izpegi-ko arrantpant bildu ziren, IV. Izpegi Igoera egon baitzen jokoan. Proban parte hartu zuten 41 pilotuetatik 35ek lortu zuten igoera despeditzea.

Sakana Motorsport eskuderiako Garikoitz Flores Aristorenak (Talex M3) eta Arkaitz Ordoki Gamezek (Silver Car S3) lehia oso estua izan zuten. Lehen entrenamendu libretan Floresek egin zuen denborarik onena, entrenamendu ofizialetan Ordokik, baina igoerako bi mangatan Flores gailendu zen eta lakuntzarrak lortu zuen garaipena, azken mangan egindako denborari esker (3:13.905). Ordokiri ia bi segundo atera zizkion (3:15.648).

Sakana Motorsporteko Iker Palacios Andueza lakuntzarra (BRC B52) lehen mangan egin zuen bere denborarik onena (3:30.003), eta sailkapen absolutuan bosgarren izan zen. Tamalez, Iñigo Zelaia Anso bakaikuarrrak (Speed Car GT 1000) ezin izan zuen proba bukatu. Matxura izan zuen eta bigarren mangan ez zuen iteeran egoterik izan.

Asteburuan hitzordu garrantzitsua du Garikoitz Floresek, Espainiako Mendi Igoeren Txapelketarako baliagarria den 50. Fito Nazioarteko Igoeran parte hartuko baitu, Asturiasen.



2022ko Sakana Igeriketa Taldeko igerilariak. SAKANA IGERIKETA

# Sakana Igeriketa Taldera batzeko aukera

**IGERIKETA** Sakana Igeriketa Taldeak 27 urte bete ditu eta datorren denboraldirako taldeko kide izatera gonbidatu ditu sakandarrak. Ekainean despedituko den denboraldiaren balorazio ona egin dute

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA

Maiatzaren erdialdetik aurrera zabaltzen da datorren denboraldiko ikastaroetan eta jardunaldietan izena emateko epea, eta aukeren artean Sakanako Igeriketa Taldea dago.

Sakana Igeriketa Taldea 1995. urtean jaio zen, beste izen batekin: Intxostia Igeriketa Taldea. Irurtzongo igerilekuetan entrenatzen zuten hasieran. "Irurtzunen igerileku instalazio onak dituzte, eta taldea han hasi zen. Arbizuko Kiroldegia egin zenean Arbizun lanean hasi zen Sakana Igeriketa Taldea, eta 2010. urte inguruan Altsasuko Zelandi kiroldegira etorri zen" aipatu du Sakana Igeriketa Taldeko idazkari Karmele Garziandia Mendinuetak.

Mikel Galan urte luzez izan zen taldeko entrenatzailea, hasieratik duela gutxira arte. Urte askoko lanaren ondoren kluba utzi zuen, beste ibilbide bati ekiteko. Azken urte hauetan hainbat entrenatzaile aritu dira Sakana

Igeriketa Taldean. Ez baita erraza monitoreak aurkitzea. Prestakuntza duen pertsona behar da, batetik, eta ordutegi prestutasuna, Sakana Igeriketa Taldeko entrenamenduak arratsaldez baitira, eta asteburu askotan txapelketak jokatzeko baitira.

**Aurten 45 igerilari**

Sakana Igeriketa Taldea 45 igerilarik osatzen dute, Sakanako herri ezberdinetakoak. Lau taldetan banatuta daude, adinaren eta euren mailaren arabera. Garziandiak azaldu duenez, badaude astean bi ordu, hiru ordu edo lau ordu entrenatzen duten igerilariak eta baita zortzi ordu entrenatzen duenik ere. "Zaila da astero zortzi orduz entrenatzea, neska-mutikoei beste ekintza batzuk ere badituztelako. Horregatik, Sakana Igeriketa Taldean ahal dela igerilarien ordutegira egokitzen saiatzen gara. Helduen taldekoek gutxienez astean lau ordu igeri egiten dute. Oso gustura etortzen dira entrena-

tzera, eta norbaitek lehenago atera behar badu, hala izaten da" gaineratu du.

Igeri egiten ikasteko Altsasuko edo Arbizuko igerileku estalietan udalek antolatutako igeriketa ikastaroak daude. Ikastaro horiek bukatzerakoan igeriketan jarraitu nahi dutenek Sakana Igeriketa Taldean dute tokia. "Aukera hau primerakoa da igeriketan sakondu nahi dutenendako, euren teknika hobetu nahi dutenendako, igeriketa egitea gustuko dutenendako eta lehiatzea gogoko dutenendako. Eta gazte txoei lehiatzea gogoko dute. Pandemiaren, txapelketarik gabe haurrak desmotibatuta zeudela nabaritu baikenuen. Beraiendako polita da txapelketetan parte

**"UMEAK IGERIKETA GUSTUKO BADU, PROBA DEZALA SAKANA TALDEAN" KARMELE GARZIANDIA**

hartzea. Ongi pasatzen dute, giro polita dago eta harreman ona eta talde oso politak egiten dira euren artean, ordu asko baitira" dio Garziandiak.

Nolanahi ere, badago soilik entrenatzen doan jendea, txapelketetan aritzen ez dena. Esaterako, triatloilari askok igeriketa alorra Sakana Igeriketa Taldean lantzen dute. "Inor ez da lehiatzen behartzen, baina egia da klub bat garen heinean gure helburuetako bat lehiatzea dela" argi du idazkariak.

Aurten lehorrean entrenatzen hasi dira lehenengoz, astean behin. "Luzaketak egiten dituzte batez ere. Entrenatzaileak dio adin horretan luzaketak egitea oso garrantzitsua dela lesioak ez izateko, eta proposamena gusturara hartu dute" azaldu du.

**Entrenatu, "buruarekin"**

Sakana Igeriketa Taldean aritzeko igeriketa maila handia behar omen dela entzuten da. "Ez da hainbesteko. Lehenengo urteetan teknika hobetu, abiadura hartu, fondoa egin... entrenamendua horretan datza, baina aparteko ezer" dio. Entrenatzen dute, "baina buruarekin. Ez dugu profesionalizatu nahi, ez dugu beste toki batzuetan bezainitsu entrenatzen. Horrek ez du esan nahi gutxiago garenik. Sakana Igeriketa Taldeko igerilariak ondo egiten dute igeri, teknika oso ona dute. Bestalde, gure igerilarietako batzuk marka oso-oso onak dituzte eta Euskal Herriko Txapelketetan parte hartu dute".

**Probatzera animatu**

Ekainean despedituko dira Nafarroako Kirol Jokoak. Denboraldiaren balorazioa positiboa da. "Umeak kontutu daude, eta hori da garrantzitsua". Datorren denboraldirako baikor daude, gogotsu. "Kopurua mantentzea gustatuko litzazuke, nagusienez, 14-16 urtekoek, jarraitzea eta berriak hastea. Bestalde, helduen talde bat sortzea nahiko genuke. Umeak igeriketa gustuko badu, proba dezala Sakanako Igeriketa Taldean aritzera, dei gaitzaitela" animatzen du ([igeriketataldea@hotmail.com](mailto:igeriketataldea@hotmail.com)). Igeriketa garapen fisikorako oso garrantzitsua dela gaineratu du, kirol osoa baita. "Adin horietan bizkar arazo asko egoten dira eta igeriketa oso ondo datorkie. Igeriketa oso ona da, ez baitu lesiorik sortzen. Eta ongi pasatuko dute".



Aurre infantil mailako txapelketa mistoko CBASK taldea, Leire Sayas eta Iker Claver entrenatzaileekin. CBASK

# Nafarroako txapelkunak!

**SASKIBALOIA** Altsasuko CBASK taldeak mutilen aurre infantil mailako txapelketa mistoa irabazi du, Arenasen kontra azken segunduan garaipena eman zien saskiratzeari esker. Leire Sayas eta Iker Claver entrenatzaileek oraindik ere ezin dute sinetsi

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU Filmeetan bezala izan zen. Nafarroako Saskibaloia Futbol Federazioko mutilen aurre infantil mailako txapelketa mistoa azken segunduan irabazi zuen Altsasuko CBASK taldeak, Tuterako Arenas taldearen kontra azken segunduan sartutako saskiratzeari esker. Partida horri eta gainontzekoetan egindako lanari esker, Nafarroako txapelkunak dira CBASK taldekoak, merezimendu osoz. Taldearen arrakastaren atzean Iker Claver eta Leire Sayas entrenatzaileak eta CBASK-eko saskibaloia jokariak daude.

## Inplikazio handia

Claverrek eta Sayasek 13 jokari trebatzen dituzte: Imanol Ramirez, Ioar Oroz, Aratz Sanzol, Kimetz Flores, Joan Lizarraga, Inhar Urteaga, Iker Za-

marron, Jurdan Pozo, Nicolas Gabriel, Nikolay Nikolaev, Mauro Lanchares, Aitor Silvestre eta Harri Mitxelena. Ikasturte hasieran hartu zuten taldearen ardura. Txikitatik Ikerrek eta biok saskibaloira jokatu dugu, eta beti esan dugu talde bat entrenatu nahi genuela biok batera. Azkenean aukera sortu zen, aurten hasi ginen eta oso pozik gaude" dio Sayasek. Entrenatzaileak hasiberriak diren aldetik, meritu handiagoa du lortutakoak, eta talde ona dutela ezin daiteke ukatu. "Normalean Iruñeko klubak eta Tuterako

**"SASKIBALOIAREKIN GUZTIZ ILUSIONATUTA DAUDE ETA HORI ASKO NABARITZEN DA"**  
IKER CLAVER

izaten dira faboritoak. Beti dute aurrekontu handiagoa, baliabide gehiago, jokari gehiago... baina gure taldeko haurrak saskibaloiarekin guztiz ilusionatuta daude, eta hori asko nabaritzen da. Nire ustez hori izan da txapelketa irabazteko arrazoia. Guk asteazkenetan eta ostiraletan entrenatzen dugu, baina beraiek, euren kabuz, astean zehar beste egun batzuetan ere joaten dira saskibaloian jokatzen, oso gustuko dutelako. Inplikazio handia duen taldea da, euren artean harreman ona duena. Eta hori guztia oso garrantzitsua da, jokatze orduan transmititzen delako" azaldu du Claverrek.

## Fillmeetan bezala

Aurre infantil mailako txapelketa mistoan, lehen fasean zortzi taldek jokatu zuten, eta guz-

tiak guztien kontra lehiatu ziren bi aldiz. "Partida guztiak irabazi genituen, bat izan ezik, Tuterako Arenasen kontra. Arenasen kontrako bi partidetan, bat irabazi eta bestea galdu genuen. Eurek puntu gehiago zituztenez, lehen postua lortu zuten eta gu bigarren sailkatu ginen" dio Claverrek.

Bigarren fasean, lehen postutik laugarren postura bitartekoan ligaxka jokatu zen. Berriozarren eta Lagunak-en kontrako partida guztiak irabazi zituzten, baina, atzera ere, Arenas izan zen CBASK-en areriorik gogorrena. "Arenasen kontrako lehen partida bi puntutik galdu genuen. Hortaz, bigarren partida bi puntutik edo gehiagotik irabazi behar genuen txapelketa irabazteko. Partida oso borrokatua izan zen, eta bukatzeke zazpi segundoren faltan puntu batetik irabazten ari ginen. Bandatik ateratzea eta saskiratzzea, ez genuen beste aukerarik. Eta hala izan zen. Bandatik atera genuen, eta saskiratzzea lortu genuen, hirutik irabaziz, 32 eta 29. Sekulakoa izan zen" gogoan du Claverrek.

Urduritasun handiko oneak bizi zituzten Claverrek eta Sayasek, baina merezi izan zuen. "Azken segunduan azken saskia lortu genuen, eta horri esker irabazi genuen liga, oso pozik nago" gaineratzen du Sayasek. Bozina gainean lortu zuten garaipena, zapora hobea duena. "Haur guztiak poz-ozik ikusten dituzu, eta oso polita da" gaineratu du Claverrek.

CBASK taldeak maiatza bukatu arte entrenatzen jarraituko du. Datorren denboraldian taldea entrenatzen jarraituko ote duten ez dute batere argi. Izan ere, 17 urte dituzte, 18 betetzeko, eta ikasketek erabakiko dute. "Oraindik ez dugu erabakirik hartu, baina oso zaila izanen da guk entrenatzen jarraitzea, agian Leire eta biok kanpora joango garela ikastera. Alde batetik pena da, hurrei maitasuna hartzen diezulako, baina kanpora ikastera joaten bagara, ezinezkoa litzateke" dio Iker Claverrek.

**"AZKEN SEGUNDOAN SARTUTAKO SASKIARI ESKER IRABAZI GENUEN LIGA"**  
LEIRE SAYAS

## CBASK Jatorman play-offetan

Leire Sayasek juniorren lehen mailako CBASK Albeniz taldean jokatzen du. "Txapelketaren maila altua da. Lehen fasean hamabi taldetik zortzigarrenak sailkatu ginen eta orain bigarren fasean 7. postutik 12. postura bitarteko postuen ligaxka ari gara jokatzen. Partida bat irabazi dugu, bi galdu eta beste bi geratzen zaizkigu" azaldu du. Larunbatean Arangurenen kontra jokatuko dute Zelandin, 16:00etan.

Iker Claver Bigarren Maila Autonomikoko CBASK Jatorman taldeko jokalaria da. Taldearendako denboraldi hau egokitapenezkoa zen, zenbait jokari taldea utzi eta jokari berriak hasteko zirelako, baina behetik gora egin du losu Mendiolak zuzentzen duen taldeak. "Denboraldi hasieran partida batzuk galdu genituen eta gaizki geundelako ustea zabaldu zen, baina gero ikusi da talde oso ona dugula. Lan gogorrena egin dugu" dio Claverrek.

Lehen fasean, hamalau taldetatik zazpigarren sailkatu da CBASK Jatorman. "San Ignacio liderrak 47 puntu ditu eta guk 43, beraz, aldea txikia da". Bigarren fasean lehen eta zortzigarren postuen arteko play-offetan lehiatuko da CBASK Jatorman. Lehen aurkaria lehen fasean bigarren sailkatu den Humiclima taldea da, talde beterrano bezain gogorra. Joaneko partida larunbatean jokatuko dute, 18:00etan, Zelandin, eta itzulera Berriozarren. "Oso animatuta gaude. Entrenatzaileak dio lasai jokatzeke, ez dugula ezer galtzeko. Ea Lauko Finaleko txartela lortzen dugun" espero du Claverrek.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 13

**IRURTZUN Mendi Jarduerak. Mendi galdu gabe ibili nahi? Oruxmaps eta wikiloc oinarritzko ikastaroa.**  
Irakaslea: Eneko Razkin.  
18:00etan, Iratxo elkartearen.

**ALTSASU Gazte agenda: Gaubela.**  
3 euro.  
18:00etatik, Intxostiapunta gazte gunean.

**ALTSASU Agoizko Udal Musika Eskola eta Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako akordeoi ikasleen ikastaroa.**  
18:15ean, musika eskolako 3. solairuan.

**SATRUSTEGI Bilboko Alde Zaharraren eta Zabalgunearen inguruko hitzaldia.**  
Hizlaria: Juanxo Madariaga.  
19:00etan, elkartearen.

**IRAÑETA Apaiz kartzela film dokumentalaren emanaldia.**  
19:00etan, udaletxearen goiko solairuan.

**ALTSASU Nafarroako Orkestra Sinfonikoa.**  
19:30ean, lortia kultur gunean.

**URDIAIN Pintxo potea eta kontzertua: Haizkan taldea.**  
20:00etatik aurrera, gaztetxean.

**IRURTZUN Nafarroan Biran programa: Lilo taldea.**  
21:00etan, kultur etxean.

## LARUNBATA 14

**IRURTZUN Mendi Jarduerak. Mendi galdu gabe ibili nahi? Oruxmaps eta wikiloc oinarritzko ikastaroa.**  
Irakaslea: Eneko Razkin.  
09:30etik 13:30era, Iratxo elkartearen.

**ALTSASU Monarkia edo Errepublikaren artean aukeratzeko herri galdeketa.**  
10:00etatik 14:00etara, lortia zabalgunean.

**OLATZAGUTIA Maisuenea Gaztetearen XXVII. urtemuga.**  
12:00etatik aurrera, herrian eta gaztetxean.

**ETXARRI ARANATZ Pello Mariñelarenaren heriotzaren 29. urteurrenaren omenaldia.**  
Jardun koordinakundeak deituta.  
13:00etan, plazan.

**OLATZAGUTIA Iñigo Aritza ikastolaren 50. urteurrena: Zirko tailerra Alain Floresekin.**  
17:00etan, goiko frontoian.

**ALTSASU Go!azen 8.0 ikuskizuna.**  
17:00etan eta 19:30ean, lortia

kultur gunean.

**ALTSASU Gazte agenda: Dardo txapelketa.**  
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**IRURTZUN II. Aixita bertso sariketa. Bertsolariak: Aissa Intsausti, Maialen Akizu, Ane Labaka, Saats Karasatorre, Aitor Irastorza eta Iker Altuna. Ondoren, afaria.**  
18:30ean, Pikuxar euskal txokoan.

**ETXARRI ARANATZ Kintada eguna: Txuma DJ. Kintoek antolatuta.**  
20:00etatik 22:30era eta 00:00etatik 03:00etara, plazan.

**ALTSASU Haizkan taldearen kontzertu akustikoa.**  
00:00etan, Arkangoa tabernan.

## IGANDEA 15

**OLATZAGUTIA Iñigo Aritza ikastolaren 50. urteurrena: Koskobilu, Burunda paleolitiko garaian Aranzadi elkartearen erakustaldia.**  
10:00etan, Erburua kiroldegian.

**EGIARRETA San Isidro nekazarien eguna. Arakilgo hildakoen omenezko meza.**  
Ondoren, auzatea.



**IRURTZUN Aitziber Iragiren Nomadak erakusketa.**  
Maiatzean zehar, Pikuxar tabernan.

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

**Un héroe gaurkotasunezko filmaren emanaldia**  
Ostirala 13: 19:00  
Igandea 15: 19:30

**Alcarrás gaurkotasunezko filmaren emanaldia**  
Osteguna 19: 19:30

12:00etan, Itxasperrin.

**ETXARRI ARANATZ Pello Mariñelarena XXIX urte gogoan. Bizi nahi eta askatasuna omenaldia. Sorku deituta.**  
13:00etan, plazan.

**IRURTZUN Mendi Jarduerak. Mendi hil, hirian hil film dokumentalaren emanaldia eta Iñaki Peña Bandres zuzendariarekin solasaldia.**  
20:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU Euskal preso eta iheslariak etxera elkarretaratzea.**  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 16

**ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.**  
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

## ASTEARTEA 17

**ALTSASU Zisheteroaraia apurtzera goaz! LGTBIQ+ fobiaren aurkako kontzertazioa.**  
Erfailake eta Ernaik deituta.  
19:00etan, udaletxearen aurrean.

## ASTEAZKENA 18

**ARBIZU Sakanako euskaltzaleen bilkura.**  
18:00etan, udaletxean.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## LANA/NEGOZIOAK

## ERRENTAN EMAN

**Lizarragako Azi Iturri Txokoa 2022ko San Adrian festetan alokatu nahi da:** Garagarrilaren (ekainaren) 17, 18, 19 eta 20an. Guxienekoa 600 euro izanen da. Alokatu nahi duen edonor maiatzaren 22an goizeko 12:00etan bertan ager dadila. Bat baino gehiago baldin badago enkantea eginen da.

**Irurtzango Udalak igerilekuetako taberna alokatu nahi du udarako:** Baldintzak udaletxean eska daitezke. Igerileku taberna eskuratu nahi duenak ekainaren 3rako aurkeztu beharko du eskaintza udaletxean bertan.

**Uharteko Arakilgo Udalen igerileku taberna eta kirol instalazioaren kudeaketa emateko deialdia:** Kirol instalazioak garbi-

tzeo eta mantentzeko zerbitzua, sarbideen eta informazio turistikoen kontrola eta igerileku tabernaren ustiapena dira kontratu bidez eman nahi dituen lanak. Urte baterako (lau urtera luzatu daitekeena) kontratuta izango da, zeinagatik 15.039,80 euro (BEZ kanpo) eskaintzen ditu. Eskaintzak maiatzaren 20ko 12:00ak arte egin daitezke Udaletxean bertan.

## LAN ESKAERA

**48 urteko emakumea, adineko jendea zaintzeko edo ostalaritza garbiketari lan egiteko prest:** Telefono zenbakia 653998035

## LAN ESKAINTZA

**Irurtzango Udalak igerilekuetarako zortzi langile kontratatu nahi ditu:** Uda sasoirako lau sorosle behar ditu, izena ematea Udaletxean egin behar da maiatzaren 18ko 14:00ak arte. Man-

tente lanetarako beste lau pertsona kontratatu nahi ditu, lanpostu horretarako izen ematea maiatzaren 19ko 14:00etan amaitzen da. Bi kasuetan Nafarroako enplegu zerbitzuan izena emanda izatea ziurtatu behar da, NANA eta euskarazko B maila ziurtatzen duen agiria. Sorosleek, sorosle titulazioa eta desfibriladore ikastaro agiria ere aurkeztu beharko dituzte.

**Lakuntzako Udalak sorosleak, garbitzaileak eta atezainak kontratatu nahi ditu igerilekuetako denboraldirako:** Aipatu lanpostuetan interesa dutenek Altsasuko enplegu bulegoan izena eman beharko dute maiatzaren 25a baino lehen. Nafar Lansare, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatuko ditu kontratazioak.

## HIGIEZINAK

## SALGAI

**Pisua bajearekin salgai:** Etxarri Aranatzeko Santakitz kalean. Interesatuak deitu 669 156 117 telefonora.

## SALGAI

**Erabili gabe dauden bi pvc lehio salgai:** kristal hirukoitzak dute eta 82ko profila. Neurriak 61x156 eta 61x151. Prezio negoziagarria. Deitu 628 506 283.

## IKASTAROA

**Emakumeendako autodefentsa ikastaroak:** Zer dira eraso sexistak? Nola pairatzen ditugu? Nola identifikatu erasoak? Bi saio iznago dituzte, honako herrietan: Uharteko Arakilen maiatzaren 20ean 17:00etatik – 21:00etara eta 21ean, 10:00etatik – 14:00etara Udaletxeko ganbaran (izen ematea maiatzaren 17an amaitzen da), Etxarri Aranatzeko maiatzaren 27an, 17:00etatik – 21:00etara, eta maiatzaren 28an,

10:00etatik – 14:00etara Kultur Etxean (izena emateko epea maiatzaren 24ean) eta Altsasun ekainaren 18an, 10:00etatik 18:00etara Gure etxea-ko eraikinean (izen ematea ekainaren 15ean amaitzen da). Izen emateak berdintasuna@sakana-mank.eus edo berdintasuna@altsasu.net emailletara idatzi edo 660 384 328 / 628 328 593 fonoetara deitu.

## OHARRAK

**Arbizun, etxerako epaitzak eskatzeko epea zabalik:** maiatzaren 20ra arte eman daitezke izena udaletxean bertan edo 948 460 017 fonoa deituz. Prezioa 35 euro. Caixako udalaren kontu korrontean sartu behar da dirua.

**Olaztiko egur loteak eskatzeko epea zabalik:** izena udaletxean eman behar da, 10:00etatik 14:00etarako ordutegian, maiatzaren 25era arte. Epaitzaren

prezioa 25 eurotako da, horietatik 10 euro udaletxean ordaindu beharko dira izena ematean eta ez dira bueltatuko. Gainontzekoa ohi bezala zozketa egunean ordainduko da, aldez aurretik jakinaraziko da noiz izango den zozketa eguna.

**Tren publiko eta sozialaren aldeko ikerketa laguntzeko:** Trenaren aldeko Alternatibak AHT bat egin beharrean gaur egun dauden azpiegiturak beregokitzea defendatzen du. Tren soziala alternatiba erreala bilatzeko ikerketa serioa egin nahi dute. Horretarako, crowdfunding kanpaina martxan jarri dute. 12000 euro jaso nahi dituzte ekainaren 2rako. Ekarpenak egin nahi duenak <https://www.kukumi-ku.com/en/proyectos/trenaren-aldeko-alternatiba/> webgunera jo dezake, edozein kopuru ongi etorria izango da.

**Gazteen Jaibuserako baimena:** Jaibus zerbitzua gidabaimena

dutenei zuzenduta dago, auto-irteerak sahisteko. Lehen bidaiek beharko dira izena ematean eta ez dira bueltatuko. Gainontzekoa ohi bezala zozketa egunean ordainduko da, aldez aurretik jakinaraziko da noiz izango den zozketa eguna.

**Tren publiko eta sozialaren aldeko ikerketa laguntzeko:** Trenaren aldeko Alternatibak AHT bat egin beharrean gaur egun dauden azpiegiturak beregokitzea defendatzen du. Tren soziala alternatiba erreala bilatzeko ikerketa serioa egin nahi dute. Horretarako, crowdfunding kanpaina martxan jarri dute. 12000 euro jaso nahi dituzte ekainaren 2rako. Ekarpenak egin nahi duenak <https://www.kukumi-ku.com/en/proyectos/trenaren-aldeko-alternatiba/> webgunera jo dezake, edozein kopuru ongi etorria izango da.

**Gazteen Jaibuserako baimena:** Jaibus zerbitzua gidabaimena

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

[www.iragarkilaburrak.eus](http://www.iragarkilaburrak.eus)

ESKELA

## Juan Andrés Martiarena Escudero

(Irurtzunen hil zen, 2022ko maiatzaren 8an)

Atakondoa ikastetxe publikoko hezkuntza komunitatea momentu zail hauetan zuen ondoan dago.

Oinazean lagun.



OROIGARRIA

## Ana Zabaleta Ulaiar

Nehiz ta urtiak pasatu,  
gaur de gukin sentitzen zeittugu



**79ko kintuek**  
25.urteurrenien  
Etxarri Aranatz

OROIGARRIA

## Fran Razkin Maiza Oscar Iriarte Razkin

Beti yonko zaie gukin

Etxarri Aranazko 68ko kintuek

OROIGARRIA

## Iosu Anduaga Goñi

XII. urteurrena  
(maiatzaren 20an)

Gure biyotzetan zaude

Eskerrik asko, Iosu

Zu fameliye

OROIGARRIA

## Jose M<sup>a</sup> Martinez de Esteban Enekoitz Mendiola Barandalla

Gukin betiko yonko zarie

Etxarri Aranazko 72ko kintuek

OROIGARRIA



## Ange Madrigal Lopez Luis Mari Arratibel Mendinueta

Beti gukin

Zuen kintuek

### JAIOTZAK

- **Araia Flores Alonso**, maiatzaren 3an Arbizun
- **Markel Garmendia Ikobalzeta**, maiatzaren 4an Etxarri Aranatzen
- **Luka Angulo Nuñez**, maiatzaren 5ean Irurtzunen

### HERIOTZAK

- **Pedro Igoa Satrustegi**, maiatzaren 5ean Lizarragan
- **Maria Sagrario Elustondo Sarasola**, maiatzaren 10ean Irurtzunen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
edo [eskela@guaixe.eus](mailto:edo.eskelak@guaixe.eus)

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€  
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



**IZARRA**

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGUÁ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU**      **ETXARRI ARANATZ**  
Santa Cruz, 6      Nagusia, 2

948 05 90 90 - [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 📧 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



## Dantzari txikiak bildu ziren

Igandean egun handia izan zen Urretxuko Lurra, Irurtzango Orritz eta Altsasuko Etorkezuna dantza taldeendako. Bi urte ondoren, Dantzari Txiki eguna ospatu ahal izan zuten Altsasan. Eguraldiak lagun, Altsasuko Musika eta Dantza eskolan bildu ziren, eta kalejiran atera ziren. Herriko hiru puntutan emanalditxoak eskaini zituzten.



BAZTERRETIK  
JUAN CARLOS LOPEZ-  
MUGARTZA

## Maiatza, lorez beterik

Apirileko azken larunbatean Santa Marinara igo ginen bihotz maitatu haren omenez, eta handik, Bargako aldapa malkartsuetatik eta Urbasako lur sakratu haietatik, urtzia zeru bilakatzen den leku berean, gogoan izan genituen haren ondoan bizi izan genituen egun zoriontsuak.

Ekialderago, paisaia zulo handi bat marrazten duten Bakaikuko haitzak ikusi genituen, eta nolabait zirrara sorrarazi zituten, noizbait guk ere gure denboraren amaieran gauditu beharko dugun azken hutsunearen alegoria balira bezala.

Handik astebetara, lur hauek bizitzaz eta oroitzapenez bete dira berriro, neguaren lozorrotik esnatu eta berriro loratzen ari den bizitzari esker ona adierazteko. Bizitzaren garaipena heriotzaren gainetik. Enbor biluziaren garaipena, ebaki eta eraitsi ondoren bizitzara itzultzen den enborrarena. Adar berriak sortu zaizkio maiatzari eta zutik harro dago bere mendian Sakana osoa bere oinetan izanik, Etxarrikoa Baizako

pagaditik hartua, Bakaikuko Idoitxarretik ekarria Hartzabalera, Ziordikoa Bargagainen jarria txara bat mozturik, Iturmendikoa kintoek menditik herriko plazaren erdira eramana, lurraren barne-barnetik sortu den inazturea balitz bezala.

Sardez, eskailerez eta sokaz lagundurik berriz ere lurretik jasotzen dute, arrano beltzak babesten duen eta ur berria etengabe darion iturriaren ondoan, eta bere itzalpean gazteak hasten dira dantzan eta denok biltzen gara auzatean, eta etxeko txorizoa ematen digute, eta gazta, eta ardorik hoberena.

Zikloa berriz osatuko da, eta behin 1366an Peru de Mayaça etxarriarrak egin zuen (eta Carasatorrek eta Arzamendik jaso zuten) bezala, beste gizon-emakumeek, beste eskuek, urtero bezala menderen mendetan, zerura iritsiko diren enbor garaienak, ederrenak eta zuzenenak altxatzen jarraituko dute.

Urtero botatzen eta urtero altxatzen den pagoa gara, moztu ondoren berpizten dena, eta jaiotze berri horrek pozez betetzen gaitu, Urdiaingo Sabas Agirrek On Jose Maria Satrustegiri jakinarazi zion poz berberaz: "Urteak hil bi ditu alegorerik, maietz, apiribila, loraz beterik".

# 1960ko hamarkadako musikarik onena

The Spolem Girls taldeak 'Oldies but Goldies' ikuskizunean garai bateko pop abesti ospetsuak eta entzunenak interpretatzen dituzte. Proiektuaren atzean Iñaki de Miguel produktorea dago, musika "retro-aren" zale amorratua.

ETXARRI ARANATZ

Haurra zenetik izan du Iñaki Miguel musikariak 1950eko, 1960ko eta 1970ko hamarkadako musikarekiko zaletasuna. Ghost filma bere zaletasuna handitzeko erabakigarria izan zen; filma ikusten ari zela bertan agertzen den abesti bat hunkitu zuen: Righteous Brothers taldearen Unchained Melody abesti ezaguna. "Taldea hauek ikertzen hasi nintzen". Garai horretan Internet ez zen existitzen, eta soul, blues, rock and roll eta Amerikako Estatu Batuetatik zetozen bestelako doinuaren inguruan ikertzeko De Miguel liburategira joaten zen, disko dendara edo irratan egiten zuten programa berezi bat entzuten zuen. Urteak pasata Internetarekin askoz errazagoa dela esan du ekoizleak.

### The Spolem Girl

Soul, gospel, blues eta abar musika Euskal Herrian ez da oso ezaguna izan, eta Miguel horren "enbaxadore" sentitzen da. Bere ametsetako bat Amerikako Estatu Batuetara bertatik bertara soul taldeak ezagutzera eta entzutera joan zenean bete zuen, gero Euskal Herrira ekartzeko eta ezagutarazteko. "Esentzia erakusteko". Eginkizuna horretarako Retro Musika produktora sortu zuen eta 1960ko hamarkadako musikaz osatutako zenbait ikuskizun sortu ditu, besteak beste, Gospel taldeak, Elvis Preyslerren ikuskizun, Christmas Show edo Gabonetako bereziak eta abar. Proiektuen artean The Spolem Girl laukotea dago. Maiatzaren 15ean, igandean, 19:30ean, laukotea *Oldies but Goldies* ikusizuna egingen du Etxarri Aranazko plazan. Emanaldiak herriko musika plazan programari hasiera emanen dio.

Duela bi edo hiru urte pentsatu zuen Miguelek emakumez osatutako talde bat sortu behar



The Spolem Girl taldea kontzertuan. RETRO MUSIKA

## TALDEA SORTZEKO "AHOTS POLITA ETA ARMONIA BOKALA" ZUTEN LAU EMAKUME BILATU ZITUEN

zuela. Lau ahots "polita, bikainak eta armonia bokalak dituenak eta 60ko hamarkadako musika egiteko" behar zituen. Kastin bat egin zuen eta aurkutatuko nesketatik lau aukeratu zituen: Miguelek Sara Grajal, Nahiari Berastegi, Natalie Keskin eta Naroa Soro abeslariak; hiru gipuzkoar eta bizkaitar bat. Helburua musika retroa "ahalik eta modu arrakastatsuean" transmititzea da. Horretarako, oso ezagunak diren abestiak hartu eta bertsionatu dituzte: "1960ko hamarkadako pop bokala ahalik eta eszenatoki handienetara eraman nahi dugu; egiteko, jotzeko, janzteko modu bat". Iraganera bidaia proposatzen dute.

Proiektu honetarako Miguelek musikak, armoniak eta "lan guztiak" egin ditu. Arte zuzendaria da, baita abesti batzuetan

musikaria da ere. Taldearen eraginak eta erreferentziak 1950eko rock and roll eta 1960ko hamarkadaren hasierako emakume ahots taldeak dira. Rock and rollaren hastapenetatik eta sortzen ari zen soul musikatik edaten du taldeak: The Shirelles, The Ronettes, The Chiffons, he Marvelettes eta The Crystal taldeak aipatzen ditu ekoizleak.

Abesti alaiak, rock and rolle-roagoak, soulagoak, baladak, dantzagarriak, a capellara... The Spolem Girl taldearen errepertorioa "oso osatua" da, betiere 1960ko hamarkadako pop horren barruan, baina abesti "oso ezagunak" direla esan du Miguelek. "Nahiz eta izenburua edo norena den ez jakin, jendeak abesteko ahalmena izango du oso abesti entzunak direlako". Klasiakoak dira.

### Arrakasta

Taldea "oso arrakastatsua" dela esan du Miguelek. Duela urte bateko gabonetan mustu zuten taldea eta lehenengo diskoa grabatzen ari dira. Bitartean, udaberriko birarekin hasi dira eta bira horren barruan Etxarri Aranatzaren izenaren dira.



Aitziber Iragi Moreno artista Pikuxarren. ITZIAR MATXAIN

# "Sortzean nire parte bat azaleratzen dut; pertsonala da"

**AITZIBER IRAGI MORENO ARTISTA**

'Nomadak' lehenengo erakusketa mustu du irurtzunadarrak Pikuxarren, duela hamar urte inguru Londresen egindako artelanekin.

**Erkuden Ruiz Barroso** IRURTZUN

Aitziber Iragi Moreno irurtzundarrak arte ederrak lizentziadurara ikasi zuen Bilbon. Moda diseinua ikasi zuen ere, eta, ondoren, Londresera bizitzera joan zen. Bertan University of Arts-en zuzendaritza artistikoa masterra egin zuen. Bertara sartzeko hiru proiektu sortu behar izan zituen. Haietako bat Nomadak zen. Hamar urte beranduago eta lehen-dabiziko aldiz erakusketa bat mustu du iragik, proiektu horretarako sortutako lanekin. Piku-

xarren hilaren amaiera arte egonen da.

**Zure lehenengo erakusketa. Nola sentitzen zara?**

Egia esan, oso pozik. Gainera, harrera oso ona izan du. Ez nuen horrelakorik espero. Gauza asko

**"IZAERAGATIK EDO EZ DUT ERAKUSKETA BAT EGITEKO IRRIKA IZAN; NIRETZAKO SORTU IZAN DUT"**

egin ditut, arte ederrak ikasi nuen aspaldi, eta sekula ez dut ezer erakusteko irrika hori izan. Agian lotsagatik edo ez dakit. Lehenengo da eta emaitzarekin oso pozik nago.

**Nola sortu zen aukera?**

Pikuxarreko bazkidea naiz. Pikuxar zaharrear, tabernan, erakusketak jartzen genituen, baina berrira pasa ginenetik oraindik ez genituen lanak zintzilikatze-sistema jarrita eta erakusketen zera hori gelditu zen. Baina berriz mugitzen hasi ginenean

esan zidaten ea zergatik ez nuen erakusketa bat egin. Hasieran baietz, gero ezetz; eta azkenean animatu nintzen. Ilusioa egin zidan.

**Nola aukeratu dituzu lanak? Zergatik lan horiek?**

Zehazki ez dakit... Lan pila bat daukat gordeta. Banituen erakusketa ezberdin asko egiteko aukera. Baina hauek duela hamar urte nituen. Aurreko urtean etxe bat erosi nuen, eta etxe horretarako horman jarri nituen guztiak elkarrekin. Erakusteko politikak zirela iruditu zitzaidan.

**Zer kontatzen du 'Nomadak' erakusketak?**

Lan hauek guztiak obra berdineko atalak dira. Londresen bizi nintzenean egin nituen, eta beste proiektu handiago baten fase bateko lanak dira.

**Proiektu hori nola sortu zenuen?**

Londresen bizi nintzenean unibertsitatean master bat ikasi nahi nuen eta sartzeko hiru proiektu entregatzea, curriculum, zenbait iraganeko irakasleen gomendio eskutitza, elkarriketa bat eta abar eskatzen zuten. Sartze prozesu nahiko zaila zen. Erakusketan erakutsitakoa entregatu nuen proiektu baten atala da. Nomadak deitzen da proiektua nomaden inguruko proiektua egin nuelako. Ikerketa egin nuen. Bakoitzak badu bere lan egiteko modua, eta nik ikerketa horretan batzen dudana informazio guztiaren sintesia egiteko marrazkia erabiltzen dut; sintesi bisuala.

**Itziar Matxainekin elkarlanean egindako lana da 'Nomadak'.**

Bai, lagun mina dut eta proiektua egiten ari nintzenean esan nion lan bat egin behar nuela eta argazki jakin batzuk behar nituela. Gutxi gorabehera nire ideia helarazi nion eta oso ongi eza-gutzen nauenez, justu behar nituen argazkiak bidali zizkidan. Nik aterako banitu ez liratekeen hobe egongo.

**Orain arte ez duzu inoiz erakusketa bat egiteko beharra izan?**

Egia esan, ez. Ez dakit oso ongi nola azaldu. Lan pila bat egin ditut. Norbaitek zerbait sortzen duenean beti pentsatzen dugu

**"SORTZE PROZESUA EUSKARRIAREN ETA NIRE ARTEKO ELKARRIZKETA BAT DA"**

baduela besteei erakusteko irrika hori. Nire kasuan, izaerak edo gelditzen nau. Ez naiz pertsona oso lotsatia, baina nire lanak oso pertsonalak dira. Sortze prozesu horretan nire parte bat azaleratzen dut, eta ez nengoen kritika ezkorrek jasotzeko prest. Nik beti niretzako lan egin dut, ez besteentzako. Unibertsitatean entregatu nituen, itzuli zizkidaten, eta gordetu nituen, inori erakutsi gabe.

**Kritika ezkorrei beldur, baina harrera ona izan duela esan duzu.**

Kritika txarrak aurrez aurre esateko ez dira horren errazak... Ez dut sentsazio txarririk izan. Kanean esan didate oso politikak direla. Kritika txarririk ez zaizkit iritsi, onak, ordea, bai. Agian horrek indarra ematen dit hurrengo baterako beldur puntu hori alde batera uzteko eta ausartago izateko.

**Zergatik ikasi zenuen arte ederrak?**

Beti izan dut artearekin harremana. Betidanik gustatu izan zait. Txikitik asko marrazten nuen; amak karpetak eta karpetak ditu nire txikitako marrazkiekin. Unibertsitatean joateko ordua iritsi zenean, arte ederrak ikastea aukeratu nuen. Moda ere oso gustukoa nuen, baina hementik hurbil ez zegoen inon ikastea aukerarik, bakarrik Barzelonan eta Madrilan, eta jauzi hori emateak beldurra eman zidan. Bilbon ikastea erabaki nuen.

**Zure lanak oso pertsonalak direla esan duzu. Nola sortzen duzu?**

Bakoitzak bere sortzeko modua dauka. Nire kasuan ez dut ez zirriborrorik egiten ez alde aurretik zer egin behar dudana pentsatu ere egiten. Orri edo euskarri txuri bat daukat, eta euskarri hori betetzen hasten naiz, baina inongo asmorik gabe. Orduan, prozesu hori da euskarriaren eta nire arteko elkarriketa bat. Nik uste dut prozesu horretan barruan ditudan momentuko sentimenduak isladatzen direla beti.

**Nola deskribatuko zenuke zure lana?**

Galdera zaila... Nomaden erakusketari buruz esan dezaket badirela formatu txikiko irudiak, teknika ezberdinak nahasiz egindakoak: grabatuak, tintak, akua-relak, argazki zatitxoak... Niretako badute bere xarma irudi bakar bezala. Nahiko finak dira, eta kolore aldetik gama berdina jarraitzen dute; kolore lasaiak, ez dago kontraste handirik.

# "Emakumeok ulertu dugu zein zen gure tokia"

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak jendaurrean hitz egiten ikasteko emakumeendako ikastaroa antolatu du. Formazioaren "bide" horretan sartzen direnen bidelagun da Aitziber Campion Ganboa. Trebatus proiektua sortu du ere.

**E. Carreño Mundiñano eta E. Ruiz Barroso** SAKANA

## 1 Nor da Aitziber Campion Ganboa?

Txikitik antzerkia egin nuen, eta asko gustatzen zitzaidan publikoaren aurrean aritzea. Institutuan hizkuntzekin oso ongi moldatzen nintzen, eta unibertsitatean filologia aukeratu nuen. Gerora jakin nuen hizkuntzetatik komunikatzeko gaitasuna gustatzen zitzaidala. AEKn eskolak eman nituen eta, ondoren, neorolinguistikora, coaching eta horrelako gauzetara jo nuen. Lan geldialdia egin nuen eta neukan ezagutza hori guztia metatzen hasi nintzen. Zer izatea gustatuko litzaidakeen pentsatu eta gaur egun arte iritsi gara, Trebatus bezalako proiektu batekin.

## 2 Zer da Trebatus?

Oinarrian komunikazioa dago. Pertsonen artean, harremanaren oinarrian, egoten den komunikazioa. Hori oinarri hartuta formazio ikastaro batzuk diseinatu nituen talde dinamizazioarekin, lan taldean, lan kolaboratiboan edo elkarlanean aritzearekin zerikusirik dutenak. Baita jendaurrean hitz egiteko gaitasuna garatzekoarekin ere.



Aitziber Campion Ganboa. TREBATUS

## 3 Ahozko komunikazioak gaur egungo munduan eta datozen garrantzia dauka?

Izaki sozialak garen heinean eta besteekin komunikatzen beharra dugun heinean, beti izango du. Garai desberdinetan balio des-

berdina izan du. Pentsatu beharko genuke norengan ikusi ditugun gaitasun horiek edo nori egotzi diogu hitz egiteko gaitasuna edo artea. Demokratizatuz joan da. Lehen oso gutxiren esku zegoen, ia superbotere bat zen. Denbora-

rekin ikusi dugu pertsona guztiek behar dugula jendaurrean hitz egin, eta ezintasunean ikusi dugu duen garrantzia. Baita sare sozialetarako ere.

## 4 Emakumei bideratutako ikastaroa da. Zailagoa dugu?

Jendaurrean hitz egiteko superbotere horrek oso harreman estua dauka espazio publikoaren okupazioarekin; zein egoten den begirada guztien erdian. Gizonek dituzte gaitasun horiek eta espazio horiek. Emakumeak hortik kanpo gelditzen dira horrela ikasi dugulako: isilik eta beti bazter batean. Erabaki guneetan egoteko gaitasunik ez dugu. Garapen txiki bat badago, baina oraindik baditugu espazio asko konkistatzeko.

## 5 Jendaurrean hitz egite horrek emakumea ahaldundu dezake?

Bai. Ez da bakarra; beste neurri bat izan daiteke. Laneko bilera bat izan daiteke hitza hartzea kostatzen zaigunean... Horri buruz hausnartzea lortzen badugu eta tresna batzuk hartzea, ahaldunduko gaitu gure iritzia eman ahal izateko. Gutxienez espazio batzuetan lagunduko digu.

## 6 Zerk galarazten du emakumeak jendaurrean hitz egite horrek?

Begiratu behar dugu emakume izateagatik nola izan garen sozializatuak. Txikitatik erakusten digute eta barneratzen dugu isilik egon behar dugula, txintxo, eta ez dugula arretarik gureganatu behar. Horren gainean eraikitzen dugu nortasuna. Gure bizitzan errepikatzen joan da, eta dena keremu pribatura eramaten gaitu. Ulertu dugu hori dela gure tokia.

## 7 Erlaxatzeak meditazioak eta abar jendaurrean hitz egiteko lagun dezake, ezta?

Meditazioak eta erlaxazioak laguntzen du orokorrean bizitzan. Baita pentsamendu positiboa ere. Baina neurriko hausnarketa bat gehitu behar diogu; ezin dugu ahaztu testuinguru bat dagoela eta ezin du hartu bere errutzat jendaurrean hitz egiteko beldur hori izatea. Testuinguru bat dago, sozializazio oso batek barneratu dio hori ez dela bere lekua.

## 8 Hezkuntza prozesuan ere pausak eman beharko liriateke?

Gogoan dut egiten genuenean yankiekiko miresmen bat zegoela. Atera zaitez eta ohitu zaitez fokuan egoten eta denon begirada jasotzen. Bada zerbait, baina tresnaz lagunduta joan behar da. Jendaurreko esposizio horrek ibilbide bat behar du.

## 9 Ikasten den zerbait da, berezkoa edo pixkanaka lantzen dena?

Ez da batere gaitasun estatikoa. Ikasten zoazen heinean eta bizitzan dituzun esperientzien arabera gaitasun gehiago hartzen dituzu. Ikastaroko tresnak praktikara eramane behar dituzu, edozein aukera baliatuz.

## 10 Nola antolatzen dituzu saioak?

Eduki teorikoak eta praktikakoak ditu. Hiru ildo dauka: abiapuntua, espresioa edo adierazpena eta, azkena, motibazioa.

## 11 Erreferenterik?

Erreferenteak baino gehiago adibideak: azalpenak entzuten ikasleak adi dituen irakaslea eta ipuinak kontatzen dituen amona.

**Buletina prest duzu?**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



**gk**  
DISEINUA ETA  
KOMUNIKAZIOA

619 821 436  
Foru plaza, 23-1. Altsasu  
info@gkomunikazioa.eus  
www.gkomunikazioa.eus

